

Helduen euskararen irakaskuntza: egoera eta bilakaera (1956-1986)

PEDRO LARREA MUXIKA

1. Sarrera

Euskal Herrian –eta inguruko lurraldeetan ere– aurrekaririk ez duen prozesu baten bidez, 70eko hamarkadaren erdialdetik gaur egunera arte batez beste 40.000 pertsona heldu inguru matrikulatzen dira urterik urte helduen euskara eskoletan. Mugimendu hori, bestalde, ez da gertaera isolatu bat, baizik eta euskal kulturaren beste agerpen batzuekin batera (dantza taldeak, ikastolak, kantagintza, literatura, euskarazko aldizkariak...) XX. mendearen erdialdean abian jarri zen euskal konzientziazte berri baten emaitza. Gaur egun, XXI. mendearen hastapenetan, Espainia eta Frantziako gobernuen laguntzarik gabe –eta maiz gobernuak kontra zituela– sortu zen mugimendu hau erabat bizirik eta indarrean dago Euskal Herri osoan. Tarte horretan antolamenduari, metodologiari eta, nola ez, euskalduntze eta alfabetatze izaerari berari atxikitako hainbat arazo eta oztopo gainditu behar izan ditu helduen euskalduntze eta alfabetatzeak.

Euskarari buruz definizio ugari eman ahal bada ere, bati erreparatu nahiko nioke: beste gauza askoren artean euskara, duela gutxi arte, eskolarik gabeko hizkuntza izan da. Izan ere, euskaldunen euskarazko letratzeak eta kulturatzeak ezaugarri bi ditu. Batetik, berantiarra da, hots, Frantzia eta Espainiako estatuek hezkuntza sistema bat ezarri, hedatu eta kontrolatu zuten zerez, non eta euskarak tokirik ez zuen. Eta bestetik, batez ere ekimen pribatuak direla bide, estatu bi horiek gorabehera, estatuen egituretatik at eta estatuen laguntzarik gabe, euskara jakitera emateko sistema ezberdin batzuk gertatu dira: ikastolak, gau-eskolak, euskaltegiak, kutur taldeak eta berriki «D» eta «B» ereduak. Europako estatu-hizkuntzen eskolaren bidezko alfabetatzea XIX. mendean gauzatzen zen bitartean, Hego Euskal Herrian 1936ko Gerrateak zapuztu zituen aurreko urteetan ezari-ezarian hasitako euskararen aldeko mugimenduak. Gerra hori egin eta galdu zuen belaunaldiaren eta Gerra ezagutu ez zutenen artean oro har etendura bat agertu zen. Haustura horrek ideologia, kultura eta, eskuarki, gainerako giza baloreak bere baitan hartu zituen. 60ko urteen amaieran eta 70ekoen hasieran gertatutako hainbat istilu eta gertakari (ikas-tolen gatazka eta apurketa, euskara batuaren onarpena, ideologia komunisten eta talde armatuen hedapena...) ez zitzaizkion arrotz izan arestian azaldutako egoera horri eta, hein handi batean, gertaturiko prozesu kulturalak baldintzatu zituzten, helduen euskalduntze-alfabetatzea barne zegoelarik. Horren garrantziaz eta gaurko-

tasunaz ohartzeko, azken urteetan euskararen adierazpenak orokorrean eta AEK-k eta *Egunkariak* bereziki jasan duten jazarpen mediatiko-judizialari baino ez diogu erreparatu behar besteak beste.

Nondik norakoak

Lan honek aztertzen duen gaiaren hasiera eta amaiera datak ez dira ausaz aukeratu, baizik eta euskaldunen bizitza kulturalaren une bi erakusten duten neurrian. Dena den, urte horiek garrantzitsuak baziren, are garrantzitsuagoak, urte horien inguruan ernatu ziren prozesuak. Ildo horretatik ETArek sorrera eta bilakaera –izan zituen zatitze eta banatze guztiekin– ez ziren txikienetarikoa. Orobat, hondar urteetan EAEko eta Nafarroako gobernuen eraketak berebiziko garrantzia izan zuen.

Hasierako data erabakitzea ez zen batere zaila, 1956. urtea mitiko-topiko bihurtu baitzaigu: Pariseko Munduko Euskal Biltzarra burutu, Mikel Laboak Iruñian jendaurrean lehenengoz kantatu, *Jakin* aldizkariaren lehenengo alea argitaratu, *Segura Irratia* sortu edo Euskaltzaindiak Gerra Zibilaren osteko lehenengo bilera irekia antolatzea bezalako ekintzak itzartzen ari zen euskal kulturaren gertaera aipagarrienak baino ez ziren.

Amaierako data erabakitzeko, gaur egunetik perspektiba nahikoa eskaintzen zuen data bat zehaztea guztiz beharrezkoa izan zaigu, gertuegi izanez gero, egunerokotasunak eskaintzen dizkigun gorabehera handiek eta gaurkotasanak perspektiba galtzeko arriskua bailekarkete. 1986. urtean, EAERako *Euskararen Legeak* eta Nafarroarako *Vascuenceren Legeak* Estatu espainoleko Auzitegi Konstituzionalaren epaia jaso zuten. Harrez gero, lege mailan bederen, lurralde bi horietan euskaldunen hizkuntza-eskubideak lege bi horien arabera ebatsiko ziren. Iparraldean, berriz, aldaketa gutxi: Frantziako Gobernuak euskaldunen hizkuntza eskubideak onartu gabe jarraitzen du eta erakunde kultural batzuk sendotuz joan ziren, Seaska, Gure Irratia eta Iparraldeko AEK batez ere.

1956-1986 tarte horretan, euskara aldarrikapen teoriko-politiko izatetik euskararen ikasketa eta erabilera sustatzera igarotzen da. Euskararekiko jarreraren aldaketa hori frankismoaren garaian sortutako kontzientziazte prozesu baten ondorioz gauzatu zen ezari-ezarian, eta hain zen garrantzitsua jarrera aldaketa hori, ezen euskaldunek ez ezik euskara ama-hizkuntza gisa ez zuten askok ere bereganatu baitzuten.

30 urteko tarte horretan, bestalde, hiru une ezberdin ikusi ditugu. Lehenengoak, luzeenak, epealdi osoaren erdia –70eko hamarkadaren hasierara arte– hartzen du bere baitan, eta *motibapen* uneari dagokio. Euskalduntasunaren aldarrikapena da garai horretako ezaugarriarik nabariena. Bigarrena *ezagutza* uneari dagokio eta euskararen irakaskuntzari zuzendu zaizkio ahalegin guztiak. Hamar bat urteko tartea da. Eta, hirugarrena *inplementazio* unea da eta azken urteetan ezagutzatik erabilera emandako urratsak erakusten ditu. Une batetik bestera pasatzean ez dira desagertzen aurreko unearen ezaugarriak, baizik eta une berriak, aurrekoaren ezaugarriak gaindituta, bere baitan hartzen ditu eta horiexek ahalbideratuko dituzte aldaketak.

2. Hizkuntzen ikasketarako teoria

2.1. Txepetx-en ekarpena

Txepetxek 1987an argitaratu zuen *Un futuro para nuestro pasado* tesiak euskararen berreskurapen prozesuekin lotura zuzena duenez, haren teoriaren argitan interpreta daitezke euskalduntzea eta alfabetatzea. Txepetxek dioenez, hiru faktorek eraginda ikasten da hizkuntza bat: motibapena, ezagutza eta erabilera (Txepetx, 1987). Are gehiago, hiru faktore horiek elkarren osagarriak dira, hirurak oso estu loturik baitaude eta batak bestea dakarrelako.

Hiru faktoreak, gainera, bi motatakoak izan daitezke: berezkoak (naturalak) eta induzituak edo erreflexuak (arrazoituak). Eta ondorioz, hiru faktore horien arabera, hizkuntzaren ikasketa –alfabetatzea zein euskalduntzea– era batekoa zein bestekoa izango da: hizkuntzaren berezko ikasketa (naturala) eta ikasketa erreflexua (arrazoitua). Lehen haurrengan gertatu ohi da eta bigarrena gazte eta helduengan. Lehenengoan, erabilpenetik motibapenerako ibilbidea burutu behar dute ikasleek eta, bigarrenean, kontrako norabidean, hots, motibapenetik erabilpenera. Hortaz, euskara ikasteko gurariari euskalduntzea dagokio eta nork bere hizkuntza jarraitzeari alfabetatzea eta, batari zein besteari ekiteko arrazoi berberak izan ditzakete ikasle helduek. Dena den, euskalduntzeak motibazioaren iturburua hizkuntzaz kanpoko faktoreetan dauka eta alfabetatzeak, aurrekoez gain, erabileran eta ezagutzan dauka motibapenaren iturburua.

2.2. Euskararen kasua

2.2.1. Motibazioa

Lehenengo une batean, 36ko Gerratea amaitutakoan, euskararen erabilera oso mugatua zen, inoiz izan duen erabilerarik murriztena, beharbada. Horretarako, agerian zein ezkutuan, ondo baino hobeto jardun zuten erregimen berriaren agintariek eta, esan denez, euskaldunen «axolagabekeriak» ere horretan bere errua izango zuen. Dena den, esanak esan, behin eta berriz errepikatu den baieztapen horrek zehaztapen baten beharra dauka: izan ere, euskaldun «axolagabe» horiexek gorde izan baitute euskara garai ilun horietan eta, oro har, euskaldunen hizkuntzarekiko ustezko «axolagabekeria» horrexek iraurarazi dio euskarari azken bi mila urteotan.

Garai horretan, batetik, euskaldun elebakardunen¹ azkenengo belaunaldien aurrean egongo ginатеke, harrez gero, hots frankismoaren garaian, jaiotako euskaldun guzti-guztiak, haurtzaroa gaindituta, elebidun bihurtu baitziren. Eta, bestetik, testuinguru horretan euskaraz hitz egiteko motibazioa hutsaren hurrengo izango zen, euskarari buruzko baloraziorik ahulena baitzuten. Euskara alorrik barnekoenetan gorde zen eta ez da harritzekoa, beraz, gerra osteko lehenengo adierazpen literarioak euskaldunen barne muina-mina olerkien bidez azalera ztea, ordukoak baititugu S. Mitxelenaren *Arantzazu* (1949) eta *Bizi nai* (1955), Orixeren *Euskaldunak* (1950), edo Iratzederren *Herri-mina* (1951); *Euzko-Gogoa* aldizkaria ahaztu barik (Guatemala, 1955).

Gerra ostean ere hainbat euskaldunen exodoa gertatu zen: batzuk, gerrak edo lanak eraginda atzerrira joan ziren eta besteak, lan bila, baseritik hirira. Giro berri bezain arrotz horretan bere euskalduntasunaren kontzientziak ohartzen ziren, agian, bertan bi munduen –ordura arte ezagututakoaren eta berriaren– arteko kontraesanak bortizkiago azalarazi zitzaizkielako. Hasiera batean gerra aurreko nazionalismoak ezarritako ideologiari eta bideari jarraitu zitzairen, anartean bera baitzen euskal erreferente bakarra. Baina, Pariseko Munduko Euskal Batzar Orokorra (1956) egin ondoren hainbat gauza aldatzen hasi ziren. Hasteko, ordura arteko nazionalismoarekin lehia ETA sortu zen eta horrekin batera ordura arte ez bezalako euskararekiko atxikimendua.

Urte horietan, euskara ikasteko motibazioa euskaraz bestekoa zen, erabat estrinsekkoa, politikoa hain zuzen ere. Baina, garai horretan oso jende gutxik ikasten zuen euskaraz eta, orduan, gramatika-itzulpenezko metodoak baino ez ziren erabiltzen. Hala ere, 60ko hamarkadaren hondarrean oso prozesu interesgarriak abian jarri ziren: ikastolen sorrera, euskara batua finkatzeko bilera (Arantzazu, 1968), Euskaltzaindiaren Alfabetatze Batzordea (1968) eta *Ez dok amairu* kantari eta poeten taldea (1965).

Lehenengo une horretan, motibazio hori «ez-nahikoa» zen orduko gizartean erhaltzen ari ziren aldaketak eragiteko. Eta gainera, hurrengo hamarkadan aldaketa horiek ahalbideratuko zituzten taldeek norabide bitan zuzentzen –xahutzen?– zituzten euren indarrak: batean, erregimenaren aurkako borrokan eta honek zekarren errepresioak eragozten zuen mugimendu zabalago baten eraketan; eta bestean, espero zitezkeen aldaketa-prozesuak gidatzeko frankismoaren aurkako taldeen arteko borrokan (funtsean Errepublikara garaiko taldeen eta azken urteetan sorturiko talde iraultzaileen artean). Euskararen irakaskuntzari dagokionez, borroka horiek sortutako giroan uler daitezke ikastolen barruko gatazkak eta zatiketak (Deustuan, Santutxun, Iruñean...) eta Arrasateko bilerako istiluak euskalduntze eta alfabetatze arloan (1971).

2.2.2. *Ezagutza*

Bigarren une batean, 70eko hamarkadaren hasieran, euskararen aldeko motibazioa sendotzen ari zen eta nahi huts bat izatetik euskal kulturaren gauzatzen ari zen egitasmo bat izaterainoko urratsak ematen hasi ziren. Motibazioak eragindako jauzi horrek euskararen irakaskuntzan izan zuen adierazpiderik argiena: batetik, bai ikasketxe kopuruari bai ikasle kopuruari zegokienez, ikastolek hazkunde handia izan zutelako, eta, bestetik, oso denbora gutxitan jende ugari hasi baitzen euskara ikasten. Motibazio mota ere eraldatzen hasi zen motibazio integratiboa gero eta garrantzia handiagoa hartzen hasi baitzen.

Lehenengo aldian euskalkiak irakasten baziren, gipuzkera batez ere, bigarren honetan, berriz, gora-behera handiak izanda ere, euskara batua zen nagusi. Ikasteko metodoetan ere aldaketa handiak gertatu ziren, European aspaldian hasitako jokabi-

deetara joz. Horrela, bada, metodo zuzenak lehenengo (*Euskalduntzen*, 1972) eta estrukturalak (*Jalgi Hadi, Hitz Egin*, 1978) geroago erabiltzen ziren.

1972. urtean Euskaltzaindiak urrats garrantzitsu bi eman zituen euskararen irakaskuntza eratu eta bultzatzearen: Euskal irakasle titulua sortu («D» titulua) eta Euskalduntze-Alfabetatze Batzordearen eginkizunak arautu. Horrez gain, urte horretan Euskal Herriko lehenengo euskaltegia Nafarroan sortu zen: Arturo Campi3n euskaltegia (1972). Horren ostean, Ilazki Donostian eta Ulibarri Bilbon (1976) sortu ziren. Liburu eta aldizkariaren argitalpenen ugalketa da garai honetako beste ezaugarri bat. Izan ere, lehendik zetorren euskaraz irakurtzeko eta ikasteko beharrak eragin zion era guztietako liburu eta aldizkariak argitaratzeari. J. M. Torrealdai, adibidez, 1976. urtea «Euskal Kazetaritzaren urtea» izendatu zuen (Torrealdai, 1977: 323-324).

Euskararen ezagutzari zegokiokeen bigarren une hau frankismoaren azken urteetan eta aldi konstituzionalaren lehenengo urteetan garatu zen, bertan aldaketa ugari gertatu zirelarik. Aurreko unean ez bezala, tarte horretan, muga batzuen barruan, euskalduntasunaren zenbait adierazpen onartzen edo toleratzen ziren, hala nola, ikurrinaren agerpena, kantaldiak, dantza agerpenak,² euskararen aldeko kanpainak (Herri Irratiek bultzaturiko «24 Ordu Euskaraz», 1976; Euskaltzaindiaren aldeko «Bai Euskarari» kanpaina, 1978), ikastolen aldeko ekitaldiak (Gipuzkoako «Kilometroak», 1977). Beste batzuk, berriz, zeharo debekatuta egon ziren 1978ra arte, Aberri Eguna, kasu.

Tarte honetan euskarazko irakaskuntza ekimen zibilek (gurasoek, kultur taldeek...) bultzatu zuten, irakaskuntza publik3tik kanpo baitzegoen: EAEn 1983ra arte, Nafarroan 1987ra arte eta Iparraldean 1986ko Ikas-Bi egitasmoaz gain besterik ez. Helduen euskalduntze eta alfabetatzea ere bide beretik zihuan, nola edo hala baimendutako legez kanpoko jarduera baitzen: EAEn 1983ra arte,³ Nafarroan 1988ra arte⁴ eta Iparraldean oraingoz ez.⁵

70eko hamarkadaren hasieratik 80ko hamarkadaren hasierara arte hamarren bat urtez luzatzen den «euskararen ezagutza» honetan AEK sortu eta finkatu egin zen, eta mugimendu horrek urte gutxitan eraman zuen euskalduntze-alfabetatzearen zamarik handiena Euskal Herrian. Tarte honen amaieran, helduen euskararen irakaskuntzarako instituzioetatik (HABE, IRALE) zein instituzioez kanpotik (Rikardo Arregi, Bilbo Zaharra Zubibarri eta Gabriel Aresti euskaltegiak) bestelako taldeak sortu ziren, AEKren baitan lehengo gatazka eta zatikerak gertatu zirelarik.

2.2.3. Erabilera

Hirugarren aldia edo erabilera aldia 80ko hamarkadaren hasieratik abiatu zen. Herri eta hirietan euskararen erabilera eta normalizazioa sustatu nahian, euskararen aldeko talde eta mugimendu berriak sortu ziren, hala nola Baionako Biltokia (1980), EKB (1983) eta Arrasate Euskaldun Dezagun (AED, 1983). Talde horiek guztiek ez zuten euskararen irakaskuntza helburu, baizik eta esparru ezberdinetan euskararen erabilera bultzatzea, euskararen presentzia areagotzea edota euskara erabiltzeko topagunea izatea.

Komunikabideei dagokienez, 1986an *Hemen* eta *Eguna*, egunkari itxurako aste-kariak plazaratu ziren, *Egin* eta *Deia* egunkarien eskuetatik hurrenez hurren. Baina, zalantza barik, ETBk (1982) eta *Euskaldunon Egunkariak* (1990) aldi honetako gertaera gogoangarrienak adierazten dituzte.

Epealdi honetan Hego Euskal Herrian euskara erabat sartu zen irakaskuntzan eta bai haurrek bai gazteek ikastetxe publiko zein pribatuetan euskaraz ikas zezaketen. Helduen euskalduntze eta alfabetatzean ere beste horrenbeste gertatu zen, EAEen euskaltegi publiko (HABE, udal euskaltegiak) zein pribatuak (euskaltegi homologatuak, AEK) eta Nafarroan AEK eta Iruñeko Hizkuntza Eskola euskalduntzen eta alfabetatzen ari baitziren. Iparraldean berriz, Seaska taldeko ikastolek eta AEK-k baino ez zuten euskara irakasten. Bertan 1986an eskola publikoetan euskararen irakaskuntza bideratzeko eskolako gurasoek bultzaturiko Ikas-Bi sortu zen, bai eta Iparraldeko elizako eskoletako haurrei euskarazko eskolak emateko Euskal Haizeak taldea ere. Badirudi Iparraldean bide naturaleko euskaldunak desagertuz zihoazen une horretan, ezagutza aldira abiatu zirela.

Irakaskuntzan baino beranduago bazen ere, EAEko administrazioan euskara sartzan hasi zen eta udaletxe eta diputazioak itzultzaileak lehenbizi eta euskara teknikariak geroago kontratatzen hasi ziren. Administrazio autonomoetatik ere euskararen erabilera arautu nahi zen, ordukoak baitziren hizkuntza-normalizazio politika finkatzeko EAEko Euskararen Aholku Batzordea (1982), Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Legea (1982) eta Nafarroako Euskararen Legea (1986). Kontestu horretan «arautu» hitza ez zen «bultzatu», «zuztatu» edo «normaldu» hitzen parekoa, «baimendu» edo «zilegitu» hitzena baizik: hots, zein egoeratan eta gertaeratan euskara ere erabil zitekeen zedarritu nahi zuten lege horiek.

Garai honetan motibazio politiko-ideologikoa desagertu ez bazen ere, motibazio instrumentala zen euskara ikasteko eragilerik nagusia. Euskara ikasteko metodoak ere eraldatu ziren eta 1983tik aurrera, metodo estrukturalekin batera, komunikaziozko jokabidea geroz eta indar handiago hartuz joan zen.

3. Pentsabidea

Gerra osteko eztabaida bizienak Gerra aurrekoen ondorengoak ziren, beti ere euskaldunen izena eta izana muina zituztelarik, guztietan ere euskaldunen hizkuntza ageri-agerian zegoelarik. Gainera, ez ziren hasi eta berehala amaitutako eztabaidak, baizik eta ondo ebatzi gabeko arazo zaharrak zirenez, grina handiz denboran zehar luzatutako eztabaida bihurtu ziren. Eta eztabaida horiek ere, gerora guztiz itxi ez baziren ere, euskaldunen arteko kontzientzia berri bat ernaltzeko balio izan zuten.

3.1. Euskara: objektua versus subjektua

60ko hamarkadaren hasieran, garai hartako eritzi guztien aurka, euskara inoiz ez bezalako balioa jasotzen hasi zen eta, hortik aurrera, zenbait sektore sozialek beste

modu batez ikusiko dute euskara. Hots, euskaldunak euskara edukitzeaz gain, edukiera hori –euskara– duelako kontzientzia izango du: euskara-dunaren kontzientzia. Ordura arte euskara aldarrikatzen zutenentzat garrantzitsua bazen ere, ez da berriro izango euskal-etnia definitzeko eskuarki erabiltzen zen beste ezaugarrietariko bat. Aitzitik, euskarak gizabanakoa euskaldun bihurtzen du. Horrela, bada, kontzientziazte prozesu baten bidez, euskara gune izanik, objektu pasiboa izatetik subjektu eragile izatera aldatu zen.

3.1.1. *Euskara, gatazka gunea*

1. *Euskaldunen eskubideetan*

Estatu espainolean, frankismoak euskararen erabilera debekatzeko arrazoi militarrez gain politikoak ere erabili zituen –*España una, grande y libre* («una» batez ere)– eta, geroxeago, erabilera mugatzeko baimen mugatuak eman zituen, hartara era askotako arrazoiak erabiliz: zientifikoak (euskararen berezko ezintasuna), giza askatasunezkoak (gaztelaniadunen eskubideak murrizteko arriskuak) eta, berriki, legezkoak (funtsean, Konstituzioaren aurka jotzea), beti ere euskararen erabilera murrizteko helburua dutelarik.

Gerra amaitu zenez geroztik, gazteleraz besteko hizkuntzen ofizialtasunari buruzko lehenengo aipamena 1978ko Espainiako Konstituzioan agertu zen. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomi Estatutua eta Nafarroako Foru Legea onartu zituzten arte, euskarak ez zuen inolako ofizialtasunik izan, eta, Nafarroaren kasuan hiru eskualdeetarik batean baino ez. Beti ere, ofizialtasun hori gazteleraren menpe agertuko da edo, bestela esanda, gaztelera lagun duela baino ez da euskara ofiziala izango.

Estatu frantsesean, berriz, gauzak xaloagoak dira: Frantzia frantsesa baino ez denez, euskara ez da. Eta, ondorioz, ez objektua ez subjektua ez denaz ezin da inolako araurik edo legerik ezarri. Hizkuntzei buruzko lege aipamen apurrak frantsesaren erabateko nagusitasuna ebazteko baino ez dira izan. Horren lekuko daukagu, adibidez, 1992ko ekainaren 25eko 92-554 Konstituzio Legearen bidez, 1958ko urriaren 4ko Konstituzioaren testuari erantsi zitzaion oharra, Errepublikako hizkuntza frantsesa dela ezartzen duena.

Ondorioz, legerik gabe zein legedi horiekin guztiekin eta edozein gobernu mota dagoela ere, frantsesaren eta gazteleraren nagusitasuna bermatu nahi dute Frantzia eta Espainiako gobernuak, euskara, gehienik ere, zenbait alorretan aukerako hizkuntza gisa utziaz. Horren arabera, legez, kasurik hoberenean ere, euskaldunek euskara erabiltzeko eskubide mugatua dute eta gaztelera eta frantsesa, berriz, nolahi eta nonahi erabili ahal dira. Gogora dezagun, azkenik, bai EAEko bai Nafarroako legeak euskararen erabilera arautzeko eginak direla eta ez, inondik ere, gaztelerarena.

2. *Euskararen erabilera sozialean*

Ikerturiko epealdi honetan, euskara jakin arren, euskara erabiltzen ez duen euskaldunik bada, eta anitz gainera. Beste askok, berriz, euskaraz hitz egin arren, zen-

bait egoeratan baino ez dute hizkuntza hori erabiltzen: etxean, lagunen artean eta ohiko lanbideetan (nekazaritzan, arrantzan eta berriki irakaskuntzan). Erabilera horretaz ohartzeko, EKBk egindako neurketak baino ez dira begiratu behar (*Bat*, 13/14, 1994: 51). Dena den, egindako ikerketen arabera (Ruiz Olabuenaga, 1983: *Euskararen Borroka*, 197), jendeak adierazitako euskararen aldeko eritziez eta benetak erabileraren arteko aldeaz konturatzea da harrigarriena.

Beraz, zenbaiten nahia eta errealitatearen arteko aldea nabariegia da horretaz ez konturatzeko moduan eta, horrela, Euskal Herriko euskaldun zein erdaldun gehien iduriko euskara nahiaren objektua den bitartean, euskaldun gutxi batzuek komunikazioaren subjektu dute, euskara ez dakienarentzat ezin baita inoiz komunikazio-subjektua izan.

3. *Euskaltzaindian*

Euskarari buruzko ikuspegi berri horrek Euskaltzaindia bete-betean harrapatu zuen, zuzenean edo zeharka zegozkion hainbat erabaki hartu eta zenbait ekimen aurrera eramanez behar izan baitzituen:

Lexikoa: 1959an *Eusker*a aldizkariak *Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz* argitaratu zuen (*Eusker*a, IV, 1959: 214) ordura arteko garbizalekeria lexikala gogorki kritikatu (Villasante, 1979: 397). Euskaltzaindiak *Agiria* plazaratu eta mende laurden bat geroago lexiko arazoak bere horretan zirauen, baina aldaketa bat zuelarik: oraingo honetan, aurreko guztiez gain, erdaratiko hitzak (gaztelaratikoak batez ere) barra-barra erabiltzen ziren. Hori zela eta, maileguzko hitz berriei buruzko hiru urtetako lanen emaitzak argitaratu zituen Akademiak (*Euskaltzaindia*, 1986: 10).

Euskara batua: Hauxe izan da Euskaltzaindia sortu zenez geroztik, 50 urtez aldean eraman duen arazo larrieneraiko bat. Azkenik, euskara batu behar zelako eritziairen kontra alde aurretik inor gutxi bazegoen ere, eztabaida linguistikoez bestelako hainbat arazo erakutsi zituen Arantzazuko bilerak, lehenengo erabaki zalapartatsuak 1968ko urriaren 5ean Euskaltzaindiak hartu zituenean.

Euskaraz, baina, batez ere erdaraz, euskara batu horren kontra ahotsak altxatu ziren. Egoera honen adierazgarri, besteak beste, Antonio M. Labayen –*Mala letra y peor espíritu de una pseudo unificación*– (Labayen, 1972) eta, geroago, J. de Arenaza ditugu (Arenaza, 1974: 31). Bide beretik baitzihozten, Idazle Bazkuna, Kardaberaz eta Euskerazaintza elkarteak ere aipatu behar ditugu.

Euskalduntze alfabetatzea: Helduak euskalduntzea eta alfabetatzea lehendik bazen izan, baina 1966tik 1979ra bitartean Euskaltzaindiak bere gain hartu zuen euskaldun helduak alfabetatzeko ardura lehenbizi, eta, horrekin batera euskalduntze-koa, geroago.

Diru arazoez gain –euskararekin zerikusirik duten jarduera guztien gaitz endemikoa, bestalde–, bi izan dira alfabetatze euskalduntzeak izan dituen arazo nagusiak: bata, zein euskara mota irakatsi behar ote zen eta, bestea, zertan zetzan alfabetatzea. Oro har, garai ezberdinak eta tokian tokiko berezitasunak gorabehera, alfa-

betatze eta euskalduntzearen izaerari buruzko desadostasunen iturburua ez zetzan hizkuntza arloan bakarrik; bestelakorik ere bazen: zelan zehaztu hizkuntzaren eta gizartearen arteko lotura eta, ondorioz, zein jokabide hartu behar zen. Horrela, bada, irakasle batzuk euskara batuaren alde azaltzen ziren bitartean, beste batzuek euskalkien aldeko joera erakusten zuten; batzuk euskararen irakaskuntza hutsetik irteten ez ziren bitartean, beste batzuek garaiko arazo politiko eta sozialetan murgiltzen zuten euskararen irakaskuntza.

4. *Irakaskuntzan*

a) Ikastolak eta herri ikastetxeak:

1943an ezerezetik sortuak, 30 urtetan ikastolak asko handitu ziren eta 1981erako 242 ikastola zeuden 7 herrialdeetan sakabanaturik eta 70.025 (*Jakin*, 34, 1985: 61) ikasle zituzten guztien artean

1968an, Elizaren laguntzaz, Gipuzkoako Ikastolen Elkarte-Batza egitea pentsatu zen. Hasierako urratsak emanda zeuden eta, horiekin batera, lehengo istiluak eta desadostasunak ere bai. Izan ere, urte horietan garaiko gertaera politikoei eta sozialek bete betean harrapatu zuten ikastolen mugimendua: frankismoak ikastolen izaera ez onartzea, heziketa erlijiosoa edo laikoa aukeratzea, irakaskuntza klasista edo herrikoia izatea eta antolamendu mota eta koordinatzeko zailtasunak izan ziren hasiera bateko arazorik larrienak eta geroago, Autonomi Estatutua onartzearekin batera, diru laguntzen banaketa eta publikatze arazoak nagusitu ziren.

Ikastola batez ere gertaera urbanoa da eta, ikastolen hedatze honetan, eskualde erdaldunetan ere ezarriz joan ziren. Horrela, bada, hasiera batean, ume gehienak euskaldunak baziren, 70ko hamarkadatik aurrera ume gehienak guraso erdaldunen seme-alabak izango ziren eta, ondorioz, irakasleek ume euskaldunei euskaraz irakastetik ume erdaldunei euskara irakastera jo behar izan zuten.

1970eko Heziketarako Legeak ez zuen euskal eskolarik onartzen eta 1979ra arte ez zen Elebitasun Dekretua argitaratu. Autonomi Estatutua onartzearen ondorioz, 1980an irakaskuntza ez unibertsitarioaren mailako funtzio eta zerbitzuak Estatutik Autonomi Erkidegora eskualdatu ziren eta, 1983an, euskararen erabilera arautuko zuen dekretua onartu zen. Beraz, EAEn erduen dekretua onartu zenez geroztik, euskarak inoiz izan ez zuen esparru batera hedatu zen: herri ikastetxetara.

Nafarroan 1963an guardia civilek Iruñako lehenengo ikastola, Irantzu Ikastola, itxi egin zuten, Queipo de Llano Nafarroako Gobernadoreak horrela agindu baitzien. Hogeita lau orduko bizitza izan zuen. Handik bi urtera, «Amigos del País» elkarteak babes juridikoa emanda, Iruñean bertan Uxue ikastola sortu zen, baina ideologia eta erlijio gatazkak eraginda 1970ean bitan banatu zen (*Atxa*, 1999: 63-66). 70eko hamarkadan Nafarroan, Euskal Herriko gainerako lurraldeetan bezala, hazkunde handia izan zuten ikastolek. Dena den, 1986. urtean OHOn % 10ek baino ez zuen euskaraz ikasi, eta hauetatik % 30 eskola publikoetan (*Argia*, 1987: 182-185). Nafarroan 1988ra arte ez zuten arautu euskarazko irakaskuntza, baina

praktikan 1986ko Vascuenceren Legea zela eta, euskara eta euskarazko irakaskuntza mugatu eta oztopatu baino ez zuten egin.

Iparraldean, berriz, 1969. urtean Seaska ikastolen elkarteak sortu zen, berea izan baita urteetan zehar haur euskaldunen euskarazko heziketaz arduratu den bakarra. Horrez gain, ezer gutxi egin da. 1951ean, Frantziako Gobernuak lehen mailako heziketan astean ordu batez tokian tokiko hizkuntza eta dialektoak ikasteko baime-na eman zuen, baldin eta frantses hizkuntzarentzat onuragarria bazen, beti ere Frantziako batasuna lehenetsiz eta bermatuz; hori guztia eginkizun horretarako jartzen zituzten baliabide urriak kontutan hartu gabe. Azkenik, 1986an Ikas-Bi programa elebiduna martxan jarri zen eta Elizaren eskoletan, berriz, Euskal Haizeak taldea hasi zen euskara irakasten.

b) Unibertsitatea:

Euskal Herriaren zatiketa unibertsitate-ikasketen arloan inon baino argiago ageri da, 1987an ekimen publiko zein pribatuko zazpi unibertsitate baitziren bertan: Deustuko Unibertsitatea (Jesuitena), Nafarroako Unibertsitate Pribatua (Opusena), Erkidego Autonomoko UPV/EHU (1977), Madrilgo Administrazioaren menpeko UNED, Euskal Herri osorako UEU, Baionako Unibertsitate Arteko Institutuak (Pabe eta Bordeleko unibertsitateen menpe) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Argi dago, beraz, hemengo unibertsitate mailako ikasketak zatituta ez ezik, Euskal Herritik kanpoko aginpideen –erlijiosoen zein zibilen– menpe egon direla eta oraingoz berdin jarraitzen dutela EHU_n, NUP_n eta UEU_n salbu.

Banaketa administratibo eta erlijiosoen gain, unibertsitate horiek guztiak beste arazo bat islatzen dute: Euskal Herriko Unibertsitatea ala Euskal Unibertsitatea. Bereizketaren horren muina, oraingoan ere, euskara da: lehenengoan euskara ikaste-ko gaia edo objektua da eta, bigarrean, berriz, euskara ezagutzaren subjektua dugu.

5. Komunikabideetan

Komunikabideak gizarteko talde eta pertsonen eritziak azaltzeko erabiltzen diren euskarriak diren aldetik, Frankoren Espainian halaberrez elkarren aurka ez zeuden bi multzo ditugu: Erregimenaren aldekoak eta Elizarenak. Azken finean, nork bere arloan, *informazioa* baino *formazioa* lehenesten zuten garai hartako komunikabide mota ezberdinek: prentsak, irratiak eta telebistak. Gainerako guztiak legetik at mugitzen ziren eta, ondorioz, askoz eragin murriztagoa zeukaten. Horrela, bada, lehenik zentsuraren bidez eta, ondoren, Fragaren Prentsaren Legea (1966) onartu zenez geroztik, autozentsuraren bidez, sor zitzaiokeen lehia deuseztatu zuen gobernu frankistak.

II. Munduko Gerratea amaitu zenetik, Frantziako egoera politikoa Espainiakoa ez bezalakoa bazen ere, Iparraldean ez zegoen euskal prentsa laikorik. Zehatzago esateko, prentsa laikorik egon bazegoen, baina frantsesez eta Euskal Herritik kanpo-tik bideratuta: *Sud-Ouest* egunkaria, Bordeletik eta *La République*, Pabetik. Euskal prentsaren ordezkari bakarra Baionako *Herria* zen baina Elizari lotua.

Elizak zeukan autonomiaz baliaturik, eta oso maiz Eliza bera gora behera, euskarazko aldizkariak argitaratzen hasi ziren: gehienak erlijiosoak, bakanen bat literarioa edo kulturala eta gutxi batzuk berri emaeleak. Azken hauen artean kazetaritza arloan hartuko zuten garrantziagatik frantziskotarren *Anaitasuna* (1953) eta kaputxinoen *Zeruko Argia* (1954) aipatu beharra dago.

Franko hil eta hurrengo urteetan, euskaraz, gazteleraz zein hizkuntza biez egingdako aldizkari asko sortu eta desagertu egin ziren elkarren lehian. Borroka horretan alderik txarrena euskarazko prentsak jaso zuen, batetik baliabide urriengatik eta bestetik prentsa erdaldunak eta elebidunak euskarazkoari irakurleak kendu zizkiotelako. Baina azkenean, prentsa elebidunak ere erdarazkoari lekua utzi zion.

Garai horretako eztabaida politiko eta sozialak euskal prentsan ere bortizki islatu ziren, gatazka horien mutur biak Bizkaiko aldizkari bik erakusten zituztelarik: *Agur* (1970-1975) eta aipaturiko *Anaitasuna* (1953-1982). Lehenengoak, (hiper-)bizkai-eraz eta tradizionalismoari lotua, gazteleraz atera zuen bere azken alea; bigarrenak, berriz, (hiper-)batuaz, ezker abertzalearen aldizkaria izan nahi izan zuen.

1976. urtea, «Euskal Kazetaritzaren Urtea» *Zeruko Argiak* izendatu bazuen ere, 1990. urtera arte ez zen euskarazko egunkaririk sortu: *Euskaldunon Egunkaria*. Ordura arte, Euskal Herrian plazaraturiko prentsa erdaldunak ezer gutxi eskaini dio euskarari.

3.2. Euz/skadi-Euskal herria: zaharrak berri

36ko gerraren amaierak euskal gudaloztearen suntsipen militarra ekarri zuen, eta II. Mundu Gerraren amaierak, berriz, Euskal Gobernuaren suntsipen moralak, nahiz eta gobernu honek irabazleen alde jokatu. Krisialdi orokor eta etorkizun argirik gabeko egoera hartan, inoiz ondo burutu ez ziren behialako eztabaidak berriro azalarazten hasi ziren. *Euskara*, *Euskal Herria* eta *euskaldunak* izan ziren eztabaida horien guztien muina, euskaldunen identitatea definitzeko oinarritzko kontzeptuak, alegia. Eztabaida horiek ez ziren bakarrik iragan historikoranzko bidaia malenkoniatsua –askorentzat horrelakoa bazen ere–, baizik eta, batez ere XX. mendearen erdialdeko existentzialismoa hedatzen zen giro hartan etorkizuna aurreikusteko eta atzemateko modu bat.

Testu inguru hartan, 1951n *Gernika* aldizkariak, Ameriketara joatearekin batera, urte betez iraungo zuen eztabaidari ekin zion: «¿Euskal-Errie o Euzkadi?» Ez zen gai berria, ordea: Sabino Aranak «Euzkadi» izena proposatu zuen unean bertan hasia baizik. Eztabaida horren eragilea Carlos Ruiz de Galarreta (*Gernika*, 17, 1951: 53) izan zen eta, funtsean, Arturo Campiónek (*RIEV*, 1, 1907: 148) ia mende erdi lehenago esan zuenari hitzez hitz eusten zion, «Euzkadi» neologismoa zela esateaz aparte ez baitzuen ezer berririk ekartzen.

Eztabaidan parte hartu zutenetariko inork ez zuen Euskal Herria izena baztertu inondik ere. Are gehiago, guztiak batzen zituena Euskal Herria zen, baina ez zegoen

erabateko adostasunik Euzkadi baztertzeko, erdiak azken honen alde agertu baitziren. Horrez gain, inork ere ez zuen Euskal Herriaren hedadura eta lurraldeen kopurua zalantzan jartzen. Euzkadi onartzen zutenek ere, Euskal Herriaren esanahi bera egotzi ziotenez, hedadura bera eman zieten hitz bie. Euskal Herriaren esanahia eta hedadura –beraren izaera onartuta edo onartu gabe–, aldiz, ez du inoiz inork zalantzan jarri, leku guztietan eta garai guztietan Athurritik Ebrora bitarteko lurraldea eta jendea izendatzeko erabili baita.

Gorago esan bezala, euskaldunek bere buruari eman dioten izenaren muinean hizkuntzaren izena bera dago: euskara. Eta Xabier Kintanak dioenez, euskara izenaren etimologia eta jatorria edozein izanda ere, euskarak izena ez ezik beste zerbait ere eman die euskaldunei (*FLV*, 20, 1975: 191).

3.3. Euskalduna: iragarritako eztabaida baten kronika

Rikardo Arregik eta *Jarra*i taldeko lagunek *Euskaltzaindiari* alfabetatze kanpaina bat bere gain har zezan eskatu zioten urte berean, 1966an, euskalduntasunari buruzko eztabaida bat piztu zen, ia urte bete eta erdi iraungo zuena. 1901ean Bilboko Lehenengo Lore-Jokoetan Unamunok egin bezala, oraingoan ere 1966ko irailaren 4an Donostiako XXIII. Euskal Jaiak irekitzean Juan Bautista Olaetxeak botatako hitzaldiak agerrarazi zuen eztabaida hori: «El concepto del vasco y de lo vasco».⁶

Ezin esan daiteke, ordea, eztabaida hura hutsetik eta ezerezetik zetorrenik. Orduan ere Unamunok XX. mendearen hasieran esandakoa hor zegoen erantzun egokirik jaso gabe eta, gainera, mende erdi luze horretako gertaerek are bizi eta gaurkoago bihurtu zuten orduko arazo hura. Batetik ihesbiderik gabeko gerra bat galtzea, bestetik etorkinak saldoka etortzea eta, azkenik, euskara berreskuratzearen aldeko hainbat mugimendu sortzea (ikastolak, alfabetatze eta euskalduntze eskolak, euskarazko argitalpen berriak...) izan ziren euskalduntasuna zalantzan jartzen zuen egoera berri horren adierazle nagusiak. Izan ere, ordura arte nazionalismoak defendatzen eta usu erabiltzen zituen hainbat kontzeptu eta ideia, barneko zein kanpoko indarren eraginez, bertan behera jausten hasiak ziren, ideia horien ondoan –eta askotan, ideia horien orde– beste batzuk eraikiz. Testuinguru honetan ezin utzi aipatu gabe mugimendu sozialen eragina eta ezkerren ekarpena, batez ere orduan hozitzen ari ziren ezker berrien ekarpenak.

Aipatu eztabaida hori puri-purian zegoelarik, batetik, euskara ikasteko metodoak berritzen hasi ziren –Jon Oñatibiaren *Euskara irrati bidez* (1965) eta Patxi Altunaren *Euskera, ire laguna* (1967)– eta, bestetik, Euskaltzaindiak alfabetatze kanpainako lehenengo ikastaroa antolatu zuen Donostian 1967ko abuztuan. Gertaera bi horiek izan zitezkeen, apika, euskalduntasunari buruz (euskalduna nor den, zergatik, zertarako...) planteatzen ziren itaunen erantzunik egokienak eta praxian eztabaida bera gailentzen zutenak.

3.3.1. Euskaldunen egoera eta irtenbideak

1. Salvatore Mitxelena

Has gaitezen, bada, euskaldun, euskara eta euskalduntasunari buruzko eztabaida horretan parte hartu zutenek zelan ikusten zuten euskararen egoera garai hartan.⁷ Gehienek antzeko diagnosa egin bazioten ere –egoera tamalgarria zuela–, denak ez zetozen bat ez egoera horren arrazoietan, ez etorkizunak lekarzkiokkeen aukeretan ez eta aurrerantzean hartu beharreko jokabidean. Euskaldunek jasaten zuten egoeraren mutur biak *Unamunok* eta *Abendatsek* adierazi zuten ondoen (Iñurritza, 1958: 77).

Hona, bada, euskarari buruzko Unamunoren pentsamendua Iñurritzak laburtua: euskara halabeharrez hilko da; desagertzeko zorian dago, gainera; euskarak ez du egungo gizarteari eta kulturaren beharriaz erantzuteko balio; halere, euskara barik ere euskaldunok ez dugu geure izaera berezia galduko. Horraz, hitz horietatik ondorio bi atera daitezke. Bata, bai euskalduna izateko eta bai kulturaren bidez egungo gizartean euskaldunok garatzeko, euskara beharrezkoa ez izateaz gain oztopoa ere bada. Eta, bestea, euskaldunok euskara alde batera utzi behar dugu, hots, aktiboki eta kontzienteki euskararen desagerpenean parte hartu behar dugu.

Euskararen goraiipamen eta defentsa mingotsa, halere, Salvatorek egin behar duena eta, Unamunori arrazoa emanez, banan-banan askatzen ditu euskararen –euskaldunen– ajeak: euskararen batasuna, aberastasuna, hiztunen kopurua, erabilera, etorkizuna... (Iñurritza, 1958: XVIII-XIX). Euskarak akatsak eduki badauzka, euskaldunok ere bai; baina, antza, ezin esan. Iñurritzak liburuaren hitzaurrean ironiaz baino minez aitortzen ditu Unamunok euskarari egotzi zizkion hainbat akats, baina ondorio berberera ailegatu barik, hots, euskara baztertzearena: «ez eutanasi'rik Ama xarrari» dio Abendatsek (Iñurritza, 1958: XIX).

2. Oteiza

Oteizak gazteleratik ez du hobeto ikusten euskararen egoera. Bere ustez, euskaldunok hondamendira doan herri bat gara eta testuinguru horretan euskalduna bera galbidean dago. Euskaldunok mendeetan zehar era bateko gizakiak egin gaituzten sustraiak alde batera utzi ditugu. Hots, gizaki bereziak: besteengandik bereiztu gaituena, besteak gugandik bereiztu diren neurri berean. Sustrai horien artean hizkuntzak berebiziko garrantzia dauka eta euskara pobretzearekin hasi ziren euskaldunak endekatzen (Oteiza, 1963: 20-22 §).

Horren arabera egoera hain da larria ezen gaur egun euskaraz hitz eginda ere euskal izaera galduta egon litekeen, hizkuntza eta izaeraren artean banaketa bat gertatu baita. Beraz, euskara, lehenbiziko abiapuntua bada ere, ez da nahikoa euskaldunon izaera definitzeko –berreskuratzeko–. Hortaz, euskara barik ez da «euskal izaerarik», baina euskararekin ere baliteke «euskal estilorik» ez izatea (Oteiza, 1963: 23 §).

3. Txillardegik

Txillardegik oso kritika zorrotza egiten die Euskal Herrian euskara baztertzen dutenei, eta «euskaldunak» izan beharrean «euzko-zaleak», «euzkadianoak» edo an-

tzeko zerbait direla diotse. Ez da izen kontu hutsa bakarrik: terminologia horren bidez euskararekiko jarrera bat erakutsi nahi du.

Euskaldunak eta euzko-zaleak, horra hor Txillardegik egiten duen bereizketa. Euskaldunek euskara dute mintzabidea, euzko-zaleek, aldiz, erdara. Eta Euskal Herria euskaldunen herria da, baldin eta euskara euskaldunen arteko mintzabidea den bitartean, hots euskaldunen arteko komunikazioa ahalbideratzen duen bitartean. Horrela ez balitz euskara eragozpena baino ez litzateke izango. Ikuspuntu horretatik, «hizkuntza pertsonaren zerbitzari» da eta ez alderantziz. Hori dela eta, euskarak, gainerako hizkuntzek bezala, komunikatzea, jakintza lortzea, hitz batez «pertsona loratzea» du helburu (Txillardegi, 1965: 75).

Azken baieztapen hori funtsezkoa da guztiz, ezen euskara euskaldunei baliagarri ez balitzaie, hots, euskarak euskaldunak munduan aurreratzeko edo kulturaz jabetzeko balioko ez balie, ez lukeen izateko inolako arrazoirik, eta orduan –eta bakarrik, orduan– euskaldunek berek bere hizkuntzaren kontra jo beharko luketen. Honetan datza, hain zuzen, Txillardegik Unamunorekin daukan antza eta aldea (Txillardegi, 1965: 75-76).

Amaitzeko, Txillardegik jarritako helburuak bete ahal izateko, ezinbestez, tresna bi beharrezkoak dira: aberri bat eta euskalduntze prozesu bat (Txillardegi, 1965: 76-78).

4. *Juan San Martin*

Txillardegik hain zorrotz kritikatu zuen zenbait euskaldunen –eta ez gutxiren– axolagabekeria euren hizkuntzarekiko San Martinek beste modu batez ulertzen du, jarrera ulerkorragoa harturik. Idazle honek euskara baztertu duten euskaldun horien arrazoiak eta izan dituzten kanpoko zein barruko eraginak aztertzen ditu (*Argia*, 229/230, 1967: 1) arrazoi bakar batean laburbilduz: «Euskal Herria bere buruaren jabe ez izatea» (San Martin, 1969: 86).

Txillardegik ez bezala, euskaldun «gaizto» horiek ulertu eta errugabetzen baditu ere, euskaldunen egoera artezteko antzeko ondorioetara heltzen da: «Euskal Herri orokorra» bere buruaren jabe izatea –Txillardegik proposatzen duen Euzkadi ote?– eta eskolaren bidezko euskararen irakaskuntza –euskalduntzea-alfabetatzea– (*Argia*, 232, 1967: 1).

3.3.2. *Euskal Herriaren hizkuntza*

Euskal Herriko hizkuntza ala Euskal Herriaren hizkuntza? Hor dago gakoa. Euskal lurraldeetan mendeetan zehar etnia eta jatorri ezberdineko gizasemeak hainbat hizkuntzaz mintzatu dira:⁸ batzuk herrialde urrunetatik ekarriak, besteak, berriz, bertan garatu dira; batzuk aspaldian desagertu ziren, besteak, berriz, garai modernoetan erruz hedatu dira. Egoera horretan euskaldunek –zenbait euskaldunek, behinik behin– hizkuntza bat baino gehiago erabili beharko zuten, halaberharrez. Guztiek utzi digute bere lorratza. Baina, hizkuntza horietatik guztietatik batek baino ez du euskal gizakia definitu: euskarak. Hortaz, euskaldunek, munduko biztanle gehienek bezala, hizkuntza bat eta bera baino ez dute izan berez: euskara. Eta, gorago

esan bezala, hori ez da –eta ez da izan– inolako oztopoa hainbat euskaldunek, bereaz gain, besteren bat izateko.

Euskalduntasunari buruzko eztabaida honetan, euskalduna zedarritu ahal duten gainerako ezaugarriak ez bezala, euskara ezaugarri markatutzat dute bai berebiziko garrantzia onartzen diotenek bai uko egiten diotenek, horiek guztiak eztabaida euskararen inguruan fokalizatzen dutelako.

Ondoko eskemak laburtzen digu ikerturiko eritzi ezberdinen arabera aurkezten dituzten euskaldun mota posibleak:

A		B	
Euskara	BAI	Euskara	(BAI) / EZ
Beste ezaugarriak	(BAI) / EZ	Beste ezaugarriak	BAI

Banaketa honetarako lurraldetasuna ez dugu kontuan harturik. Hala ere, badago halako lotura bat «A» defenditzen dutenen artean Euskal Herria bere osotasunean defenditzen dutenenekin eta, bestalde, «B» eritzikoe, eskuarki, Euskal Herriaren zati bat (3 edo 4 probintziak, Hegoaldea/Iparraldea) baino ez ohi dute aintzat hartzen.

3.3.3. *Euskalduna nor*

Salbatore Mitxelenak aitortu zuen euskaldunok «ausarki dakigula zeintzuk garen eta zeintzuk izan nahi dugun» (Iñurritza, 1958: 31). Baina, jaso ditugun adierazpen ugarien arabera, baieztapen hori, agidanez, ezin egiazta daiteke oso erraz, ez baitago batere argi nortzuk garen ez eta zer izan nahi dugun.

Hasteko, S. Mitxelena zenbait euskaltzale integristen ikuspegi meharraz kexu da eta, borondate oneko jarduna eginez, eskuzabaltasunez jokatzan du Euskal Herri zabal eta aniztasunean, denok euskaldunak izanik, denok lekua daukagula esanez (Iñurritza, 1958: XVII).

Txillardegik, berriz, euskalduna nor den baino nor ez den argiago dauka, azken hauen tipologia zabala eskainiz (Txillardegik, 1965: 70): «'Euzko'ak, 'euzkadiano'ak, 'aberriano'ak, 'vascongadillo'ak, 'euzkadillero'ak, eta gaiñerako piztia arrotzak gutartera ziran ezkeroztik, gure herriaren bihotza, odola dariolarik, erdibiturik dago».

Jose Azurmendik *zergatik eta zertarako euskaldun* galdetzeagatik kritika ez ezik irain ugari ere jaso ditu (*Jakin*, 25, 1967: 1): «iñoiz merezi ez zituen erantzun eskas eta asmatu daitezkean izen xahar guztiak jaso ditu bere gain. 'Unamuniano', 'barojiano' ta 'españolista'-tik hasi ta 'traidore'-tzat salatzeraino». Eta *Jakin* aldizkariko zuzendaritza beraren alde agertu bada ere, Azurmendik bere burua defendatu behar du ordura arte euskalduna nor zen agertuz (*Argia*, 217, 1967: 7): «Gaur artean behintzat euskaldun –euskaraz itzegiten zuena– eta euskaltzale nintzan».⁹ Badirudi, beraz, euskaldunek bere burua definitzeko mendeetan zehar erabili duten *euskara-dun* / *erdara-dun* aurkaritza zalantzan jarriz gero, bestelako ezaugarriak bilatu behar direla.

Beste askotan bezala, euskaldunaren definizioak ondoko joera suntsigarri bi hauen artean ager daitezke. Bata, zabala –zabalegia–, bere baitan jende guztia sar daitekeena. Bestea, berriz, murrizta –murriztegia–, muga ia gaindiezin batzuk jartzen ditueena. Bata bestea bezain hutsala. Lehenengoa hain da zabala ezen eragin gabekoa bihurtzen baita, euskalduna nor den zehazteko balio ez duelarik. Bigarrena hain da meharra ezen gutxi batzuek baino ez baitaukate sarbiderik, Euskal Herriko biztanle gehienak kanpoan uzten dituelarik.

4. Euskalduntzea eta alfabetatzea

Helduen alfabetatze eta euskalduntzea (erdi)ezkutuan lehendik zetorren aktibitatea bazen ere, Rikardo Arregik eta Jarrai taldeak 60ko hamarkadaren erdialdean euskaldunak alfabetatzeko kanpaina batzuk antolatu zituzten Euskaltzaindiaren bidez. Ordura arteko euskal eskolak ez bezala, alfabetatzeko kanpaina horiek antolamendu berri baten ernamuinak izan ziren, horretarako helburu eta baliabide batzuk zehazten zituztelarik, nahiz eta oso gutxitan eskuratzen zituzten.

Kanpaina horiek ez ziren ezerezetik sortu. Batetik, urte horietan baziren Euskal Herrian zehar handik eta hemendik sakabanatutako helduentzako euskal eskolak: alfabetatzekoak zein euskalduntzekoak. Eta, bestetik, 2. Munduko Gerrateaz geroztik prozesu iraultzaileak izan zituzten herrialdeetan antolaturiko arrakasta handiko alfabetatze kanpainek –Txinan («Kultur iraultza»), Kuban (1961) eta Brasilen (1947-1964),¹⁰ kasurako– berebiziko eragina izan zuten euskaldunen alfabetatzean. Gainera, 1965. urtean UNESCOk Teheranen antolaturiko nazioarteko batzarrean helduen alfabetatze funtzionalaren beharra aztertu zuen, alfabetatzea ekonomiaren prozesuetan txertatuz.

Ildo horretatik, ezin esan daiteke alfabetatze-euskalduntzeak munduan zehar gertatzen ziren berrikuntzekin zerikusirik ez zuenik. Aitzitik, masen alfabetatzearen bidez euskaldunek bere izaeraz duten kontzientzia maila adierazteaz gain, munduan gertatzen diren aldaketetan euskaldunen parte hartzeko gogoia ere erakusten du alfabetatze prozesu horrek. Gertaera horrek berebiziko garrantzia hartzen du euskara gizarte modernoan erronkei aurre egiteko gauza ez den hizkuntza zaharkitua bezala aurkeztu dutenen aurrean, edota euskaldunen alfabetatzea prozesu chauvinista eta atzerakoia bezala kritikatu dutenen aurrean. Azken batean, kontrako horien ustez, euskarak prozesu kultural modernoak eragozten omen ditu. Pentsaera hori gaur egun ere indarrean dago eta ez dira gutxi euskara Europako beste hizkuntza batzuekin (ingelarekin bereziki) konparatzen eta kontrajartzen dutenak, bata jakiteak besteari buruzko ezagupenak ezabatuko balitu bezala.

60ko hamarkadara arte, benik behin, euskalduntze eta alfabetatzea euskaltzale gutxi batzuen prozesu elitista baino ez zen: orokorrean, kultur maila handiko pertsonak ziren, ikasiak; batzuk familia diruduneko semeak (alabarik ez ote?), beste batzuk apaizak edo fraideak eta langile bakanen bat baino ez, eta bere euskararen oinarrian euskalkiren bat edo beste zeukaten. 60ko hamarkadaz geroztik, euskal-

duntzeak eta alfabetatzeak erabateko berrikuntza izan zuten, kontzientziate prozesu baten ondorioz, gero eta jende gehiagok euskara ikasteari ekin baitzion. Horren ondorioz, era guztietako jendea aurki daiteke helduen alfabetatze eta euskalduntze eskoletan: euskaldunak zein erdaldunak; ikasleak, langileak zein etxekoandreak; gizezonezkoak zein emakumezkoak; gazteak zein nagusiak; ikasiak zein ikasibakoak; familia diruduneko seme-alabak zein familia arruntetakoak; abadekiak zein laikoak.

4.1. Alfabetatzearen definiziorantz

4.1.1. Rikardo Arregi edo kontzientzia sortzailea

Rikardo Arregik euskal alfabetatzea kultura-egitasmo zabalago baten barruan kokatu zuen, eta hortik dator kio, hain zuzen, alfabetate arloan izan zuen garrantzia. Batetik, alfabetatzea zertan zen zehaztu, bestetik, alfabetatzearen beharraz teoria bat egin eta, azkenik, alfabetatzearen antolamenduaz plangintza bat eraiki zuen. Alde horretatik, Rikardok –eta bere taldeak– gairitu zituen ordura arte Euskal Herrian zehar egiten ari ziren ahalegin eta ekimen sakabanatuak, alfabetatze prozesua bideratzeko Euskaltzaindiaren bidez egitura eta antolamendu egonkorra eskainiz. Era horretan euskaldunen alfabetatzea abertzaleen eskakizun hutsa izatetik egitasmo sozial zabalago batera izatera igaro zen.

1971an Alfabetatze Batzordeak *euskaldunen gizagintzaren* eginkizunen artean jarri zuen R. Arregiren alfabetatzea, berau «kontzientzi sortzailea» baitzen. Izan ere, R. Arregik «Euskaldunen gizagintza» deritzon hitzaldian, alienazio guztien aurka gizaikiak, gizaki izango bazen, jo beharko zuela zioen eta euskalduna izatea gizaki izateko modu konkretua zela (*Jakin Sorta*, 3, 1971: 179).

1971an, Gipuzkoako Alfabetatze Bulegoko Mikel Arregik, J. Bernardo Jauregik eta Andoni Sagarnak *Lehen Urratsak* argitaratu zutenean beste hitzez aurreko ideia bera errepikatu zuten (GAB, 1971: 4): «Euskaldun Alfabetatzeak kontzientzi sortzaile izan nahi du, euskal giza-gintzan abiatzeko bide, baina hori izan dadin hizkuntzaren oztupoa gairitu beharra dauka». Urte horretan ere, Arrasateko bilera kalapitatuaren ondorioz, Gipuzkoako Alfabetatze Batzordea Euskaltzainditik kanpo geratu zen bere kideak sakabanaturik.

4.1.2. Haranburu-Altuna edo hizkuntzaren azterketa ideologikoa

Haranburu-Altunak 1972. urtearen hasieran *Anaitasuna* aldizkarian argitaraturiko artikulu bitan, R. Arregiren urratsei jarraituz –horrela onartzen ez bazuen ere–, analfabetoa nor zen eta alfabetatzea zer zen azaldu zuen (*Anaitasuna*, 227, 1972: 3). Horren arabera, analfabetoak ez dira bakarrik idazten eta irakurtzen ez dakitenak; aitzitik, analfabetoa, *bestekeriari*, hots, alienazioari emana dena ere bada. Beraz, ikuspegi horretatik euskal alfabetatzeak euskal kontzientziaren piztaile izan behar du, eta ez, dioenez, «gramatikakakeria agorra». Horrela, bada, gutxienez alfabetatze mota bi bereiztu zituen, bata bestearen atzetik eman beharrekoak: «*alfabetatze literarioa*» edo lehenengo urratsa eta «*alfabetatze kulturala*» edo bigarren urratsa. Are gehiago, bigarrena barik –alfabetatze kulturala barik– lehenengoa –literarioa– alferrikakoa

zen. Alfabetatzearen bigarren urrats hori horrelaxe definitu zuen Haranburu-Altunak (*Anaitasuna*, 229, 1972: 8): «Alfabetatzearen lehen eginbeharra eta jomuga, hizkuntzaren azterketa kritikoa da. Geure eguneroko hizkera problematizatu egin behar dugu. Honela, gure eguneroko bizimoldeak kritikagarri agertuko zaizkigu; eta kritika honetan datza benetako kontzientziaren iturburua».

Haranburu-Altunak eta Rikardo Arregik, biek, alfabetatzea euskal kontzientziaren pizgarritzat jotzen badute ere, eurek planteatzen dituzten alfabetatze ereduen arteko aldeak bitan labur daitezke. Bateko, R. Arregik, ikuspuntu humanista batetik, euskaldun ororen alfabetatzea planteatzen du, talde sozialik bereiztu barik. Haranburu-Altuna, berriz, klase ikuspuntu batetik, euskal langileen alfabetatzeaz ari da: lehenengoa populista, bigarrena, berriz, ezkertiarra (*Anaitasuna*, 229, 1972: 9). Eta gainera, Haranburu-Altunak langileen etengabeko alfabetatzea proposatzen du lehenengo urratsak bigarrena dakarrelako eta bata ez baitu ezertarako balio bestea(k) eman ezean (*Anaitasuna*, 227, 1972: 3).

4.1.3. Eusebio Osa edo heziketa askatzailea

Eusebio Osak, planteamendu marxista argiago –kristaua ere bai– batetik eta Paulo Freireren irakasbide eta esperientziei jarraituz, alfabetatze arazoa ez du irakaskuntzaren aldetik jorratzen, heziketaren aldetik baizik. Bide horretatik, bai haur eta gazteen heziketak bai helduenak oinarri berberak dituzte, guztien heziketa etengabeko zeregin bezala ikusten duelarik. Berak dioenez, bereizketa ez dago gazte eta helduen artean, gizarte klaseen artean baizik (OSA, 1972: 38).

E. Osak bi heziketa mota bereizten ditu, pentsamolde ezberdin biren isla direnak: *heziketa ordenatzailea* eta *heziketa transformatzailea*.¹¹ Lehenengoa, heziketa ordenatzailea, tradizioan finkaturik, «ordenaren» balorean oinarritzen den heziketa dugu, betiko printzipio eta egia aldagaitzei eusten dielarik. Hori gutxi balitz, heziketa ordenatzailearen oinarrian eta pentsamoldean klase pribilegiatu batzuen iraun beharra ikusten du eta, horregatik, ohiko irakaskuntzak eta eskolak gizarte taldeak eta mailak berregiten eta islatzen ditu. Heziketa transformatzailea, berriz, aurreko guztia kritikatu, kulturaren eboluzioan, bizitzan eta elkar-lanean finkatzen da, gizakia eboluzio bidean ibili dabilen norbait baita, eta ez amaituta dagoen norbait (Osa, 1972: 52).

Horrela, bada, P. Freireri jarraituz, heziketaren helburua gizakia askatzea da, irakaskuntza eta horren barruan alfabetatzea aipaturiko helburua lortzeko baliabideak baino ez direla. Eta, zein den heziketaren bidez askatu behar den gizakia. Ezbairik gabe, zapaldua dagoena. Hori dela eta, bere teoriaren euskarri biak *heziketa askatzailea* eta *zapalduen pedagogia* dira.

Ildo horretatik erraz ulertzen da planteamendu horrek eskatzen duen konpromiso maila eta ikuspegi iraultzailea hainbat liskarren iturburu izatea. Hori dela eta, bada, denek ez zuten alfabetatze euskalduntzeari buruzko eritzi bera eta alde nabarmenak Arrasateko bileran (1971-12-18) azaldu ziren, jarrera bi agerian utziz: bata,

«politikoagoa» eta, bestea, «gramatikalagoa».¹² Jose Luis Lizundiaren ustetan, ordea, kontzientzia sortu behar hori aipatu barik alfabetatze mugimenduari eraso zioten guztien jarrerak politikoak ziren: eskumakoenak zein ezkerrekoenak (Lizundia, 1990: 21).

Alfabetatze eta euskalduntzearen izaera politikoaz Eusebio Osak ere hitz egin zuen batzuen itxurazko apolitikotasuna gogor kritikatu (Anaitasuna, 230, 1972: 6): «Ez dago hizkera, ariketa, gramatika, hiztegi neutralik... Izan ere, bietatik bat: Zientziak politika egingo du, edo bestela politika bat *sufrituko* du. Euskararen irakaskuntzan politikagile ez bagara, politikaren morroi gara. Geure borondatezko murrizketaz, gainera. Eta borondatezko morroia agintariaren kolaboradore dela esan beharrik ote dago?».

4.1.4. Euskaltzaindia edo erakundetzea

1971eko Arrasateko bilerak eraginda eta sortutako egoera gaitzearren, 1972ko ekainean, Euskaltzaindiak, alfabetatzearen alde formalarik errepertatu, «Alfabetatze Batzordearen Oinarri Arauak» argitaratu zituen, bertan batzorde horren helburuak azaldu zituelarik (*Euskera*, XVII, 1972: 218):

2. Batzorde honen xedeak, hauek dira: euskeraz irakurtzen eta idazten irakastea. Horrekin batean, euskeraren inguruko gaiak sar daitezke: euskal literatura, euskeraren batasuna, euskeraren geografia eta dialektologia, eta abar. Alfabetatze literarioa, beraz. Bestelako gaiak ez dira Euskaltzaindiaren Alfabetatze Batzordearenak. Zenbaitek beste gairik erabili nahi baldin badu, ezingo du Euskaltzaindiaren eta bere «Euskal Alfabetatzearen» izenik hartu.

Argi dago, beraz, batzorde honen helburua irakurtzen eta idazten irakastea dela, ahozko trebetasunak –entzumenaren ulermena eta mintzamena– alde batera utzirik. Euskaltzaindiak idatzizko ekoizpenari eman dion lehentasuna ez da alfabetatzearen arlo honetan bakarrik igartzen, euskara batuan ere idatzizko ekarpenak lehenetsi ditu, ahozkoak alde batera utzirik. Metodo zuzenak agertu arte behinik behin, Euskaltzaindiak ez ezik euskara ikasteko metodogile gehienek ere idatzizko euskara lehenesten zuten 60ko urteetan eta 70eko urteen hasieran, itzulpenetan oinarrituriko metodo gramatikalak nagusiak zirelarik.

Bestalde, ezin esan daiteke Arrasaten gertaturiko Alfabetatze Batzordearen zati-tze hori guztiz kaltegarria izan zenik. Batetik, egia da antolamendu mailan Gipuzkoari ahultzea ekarri ziola, baina euskalduntze-alfabetatzeak nola edo hala Gipuzkoan jarraitu zuen. Eta, bestetik, Lizundiak dioenez (Lizundia, 1990: 22), ideiak argitzeaz gain, antolamendu sendoagoa ekarri zuen.

4.1.5. A.E.K. edo borrokabidea

1976an, *Anaitasunak* azaldu zuenez, alfabetatzeak beste urrats bat ematen du eta aurreko urteetako «kontzientzia sortzailea» izatetik «burrakabidea» izateraino igarotzen da planteamendu iraultzaile baten eskutik. Aldizkari horrek, euskararekiko hainbaten jokabidea kritikatu, alfabetatzea ez ezik euskalduntzea ere aipatzen du bi-biak jarduera beraren elkarren osagarriak direlarik, egungo Euskal Herrian elka-

rrren osagarriak baitira eta, gainera, beste eginkizun batzuetarako eredu bilakatu direlako (*Anaitasuna*, 311, 1976: 3).

Eduardo Diaz Goikuriak, 80ko urteen hasieran HABEren eta AEKren arteko harreman eta tirabiren ondorioz sortutako alternatiba ezberdinak azaltzean, era gordinen laburtzen du AEKren Alternatiba deritzan txostena (Diaz Goikuria, 1988: 45): «AEKk Alternatiba aurrera eramateko borroka egin behar du. Borroka iraultzaile eta bilakatzaille hain zuzen. Eta borrokaz baliatuz kultura iraultzaile eta bilakatzaille baten eskaintza egin, kultura hau ideologia zabal batetan oinarrituz, neokapitalismo sistema salatuz».

1985ean, ordura arteko bilakaera eta esperientziak kontuan harturik, AEK-k alfabetatzearen helburuak, metodologia, lehentasunak eta baliabideak definitu zituen. Horrela, bada, AEKren ustetan, alfabetatzea ez da hizkuntza ezagupenen transmisio hutsa, euskaldunak kulturatzeko bidea baizik. Kulturatzeko hori modu dinamikoan ulertzen du AEK-k ikasleak ukitzen dituzten arazoetan aktiboki inplikaturik eta herriko premiei erantzuna emanez (AEK, 1985: 5).

4.1.6. H.A.B.E. edo instituzionalizatzea

Eusko Kontseilu Nagusia 1978an sortu zen une beretik hasi ziren erakunde horren eta AEKren arteko harremanak eta negoziaketak, eta hasieratik ere alde bien arteko desadostasunak nabarmenagoak ziren adostasunak baino. Desadostasun horiek arlo guztiak hartzen zituzten: antolamendua, finantziario, kontrol sistema, lurraldetasuna eta, nola ez, alfabetatze eta euskalduntzeari buruzko eritzi ezberdinak. Gainera, Euskaltzaindiak babesa kendu egin zion bere baitan sortu eta hazitako AEKri, harremanak EKNrekin izan beharko zituelakoan.

EKNrekin, lehenengo, eta Eusko Jaurlaritzarekin, geroago, izandako hartu-emanek AEKren bilakaera baldintzatu zuten EAEn ez ezik Euskal Herri osoan ere. Horrela, bada, 80ko urteen hasieran, batez ere AEK-ko Bizkaiko arduradunek bultzatuta, koordinakundea izatetik erakunde izatera igaro zen, horrek zekarren antolamendu eta erabakiak hartzeko hierarkizazio mailekin.

Bestalde, EAEn euskararen irakaskuntzaren alor bera betetzen zuten erakunde biek halabeharrez identitate ikur bereizgarriak erakutsi beharra izan zuten. Bereizketa hori bai ideologian (Euskal Herria / EAE), bai antolamenduan (hierarkizazio maila ezberdinak: horizontala / bertikala) eta bai erabilitako metodoetan gauzatu zen. Ezberdinak zirela erakutsi behar horrek bai AEK bai HABE material didaktiko berria argitaratzera eramanez zituen, ordukoak baitziren AEKren *Hormairudiak* eta HABEren *Langaiak*.

Argi dago AEKren eta HABEren arteko liskar horren muinari dagokionez alfabetatze eta euskalduntzeari buruzko bi ikuskera ezberdin zeudena, eta, liskarren azalari dagokionez, AEK-k oinarritzeko antolamendua zeukana eta HABE-k, berriz, dirua. Euskadiko Autonomi Erkidegoan HABEren eta AEKren arteko gatazkak ez ziren 1995era arte baretu, urte horretan erakunde bien arteko hitzarmena sinatu

baitzuten eta, horrez gain 1996-2000 bitarteko hitzarmen markoa ere bai. Hamabost urteko tarte horretan AEK-k helduen euskarazko irakaskuntzaren ia %60 kontrolatetik ikasle helduen herena izatera igaro zen.¹³

HABE sortarazten duen Legeak (HABESEA: Azaroaren 25eko 29/1983 Legea), ordura arteko eztabaidak ahazturik, institutu horren helburuak xedatzen ditu, baina arlo formala baino ez du kontuan hartzen, euskararen irakaskuntzara mugatuz: HABEk ez du kulturatze prozesuaz jarduten, ez kontzientziazte beharrianaz ez eta post-alfabetatze baten beharraz ere; bai, ordea, alfabetatze eta euskalduntze jendetsuaz (EHAA, 1983-12-12).

HABEk proposaturiko alfabetatzearen ezaugarriak hauek dira: kulturaren txer-tatua, apolitikoa, linguistikoa eta euskara batuaz egindakoa. Ikus ditzagun banan banan ezaugarriok.

Lehenik, alfabetatzea gaurko kultura orokorraren barnean gauzatu behar dela HABEk dioen arren, ez du zehazten kultura hori zertan datzan: jakintza maila bati ote dagokion eta horrela izatekotan, zein mailari. Ez du zehazten kultura hori kultura ikasia-irakatsia, herri kultura, euskal kultura ala zer ote den, ez eta euskal eskolatan kultura hori irakatsi eta landu behar ote den ere, eta lantzekotan zein mailatan edo zein den kultura mota ezberdinen arteko erlazioa.

Bigarrenik, HABEk alfabetatze markatua eta ez markatua bereizten ditu: lehenengo ideologia baten menpe legoke eta, bigarrena, antza, ez. Baina HABEk ez du kontuan hartzen, «gaur eta hemen», euskaraz egindako edozein alfabetatze mota markatua dela: alde batera edo bestera. Baina, beti ere markatua, ideologia edo politika mota batek alde batera edo bestera bultzatu edo eragozten baitu. Are gehiago, euskarazko alfabetatze xumeena ere, kontzientziazte prozesu baten emaitza den aldetik, ideologikoa ere bada eta, beraz, markatua izango da beti. Eta alderantziz, euskarazko alfabetatze xumeena gaitzesten duenak ere jarrera politiko bat erakusten du.¹⁴ Ez dugu ahaztu behar HABE sortzea bera ere erabaki politikoa izan zela (*Argia*, 1984: 165).

Hirugarrenik, alfabetatzearen helburua linguistikoa dela dioenean, ikasleak lau trebetasunak menperatu behar dituela dio: ahozko bi (entzutezko ulermena eta mintzamina) eta idatzizko beste bi (irakurriaren ulermena eta idazmina). Baina, bereziki azken biak ditu kontuan, idatzizko euskarria behar dutenak, hain zuzen (HABE, 1983: 30).

Eta azkenik, HABEk ez du alfabetatugaien euskalkian alfabetatzen, euskara batuan baizik. Euskalkiak euskara batuan alfabetatzeko euskarri bat baino ez dira (HABE, 1983: 30).

4.2. Irakasleak

4.2.1. IRAKASLEEN GABEZIAK

Ez da erraz zehazten euskara irakasleriaren ezaugarriak zeintzuk diren. Izan ere, 1983ra arte ez zen HABEko irakasleei buruzko ikerketa sakonik egin (*Zutabe*, 3,

1983: 10), ez eta irakasleen datuak sistematikoki jaso ere.¹⁵ Horregatik, jarduera honek izan dituen gabeziak aiseago antzeman daitezke berau definitzen duten ezauzgarriak baino.¹⁶

1. *Goi-mailako titulurik eza*

Ez dago euskara irakaslearen berariazko titulurik, ez eta unibertsitate mailako ikasketarik ere. Ez da inoiz izan. Gehienik ere, 1992-93 ikasturterako, batetik, Euskal Herriko Unibertsitateak EKBrekin hitzarmen bat sinatu zuen *Euskalduntze eta Alfabetatzerako Diplomatura* sortzeko eta, bestetik, unibertsitate berak eta urte beraen HABErekin beste hitzarmen bat sinatu zuen *Graduado Ondoko Ikastaroak* antolatzeko.

HABE sortu arte ez zen inolako titulurik eskatzen eta, orduan ere, HABEren menpe edo HABEk homologatuetako euskaltegietan baino ez ziren EGA (edo baliokidea) eta unibertsitate mailako edozein ikasketatako diplomaturaren bat edukitzea eskatzen. Horren aurretik, ezer gutxi: 1972ra arte Euskaltzaindiaren Jagon Saila ez zen Euskal Irakasle Titulua (D Titulua) ematen hasi (*Euskara*, XVII, 1972) eta bost urte geroago hizkuntza eskolena agertu zen.

2. *Prestakuntzarik eza*

Prestakuntzarik ez, bai, ordea, prestutasuna. Bigarren horrek bete egiten baitzuen irakasleen prestakuntzaren gabezia.

Hasiera batean nahiko zen euskalduna izatea irakasle bihurtzeko. Askotan irakasleak autodidakta ziren edo ikastaro txiki bat jaso ondoren ikasleak irakasle bihurtzen ziren. Izan ere, irakasleak ikasleen artean sortzen zirenez, bere formazioa eta prestakuntza ikaslea izandako garaian jasotakoa zen. Hortik aurrera nork bere prestakuntzarako bidea egin behar izaten zuen. Sarri askotan, talde bereko ikasleen eta irakaslearen arteko aldea irakasleak jasotako ikastaro labur bat baino ez zen. Ikastaro horietan, funtsean, irakasleek gramatika aldetiko prestakuntza baino ez zuten jasotzen, arlo didaktiko metodologikoa erabat baztertuz. Besteetan, teknika jakin batzuetan baino ez ziren trebatzen, eskolak emateko oinarrizko erizpideak jasoz. Kontuan hartu behar da 70eko hamarkadara arte gramatika itzulpenezko metodoak nagusi zirela eta, ondorioz, eskolak emateko hizkuntzaren gramatikaren arauak jakitea guztiz beharrezkoa zela eta ez hainbeste, hizkuntza bera.

1984ko ekainaren 22an HABEk Euskaltegi Publiko eta Pribatu Homologatuetan irakasle izateko prestaketa-frogetarako –habilitazio edo homologazio froga izenez ezagunagoa– deialdia egin zuen. Froga hauek ez zuten egoeraren aldaketa ekarri, baizik eta batetik, orduko egoeraren isla bat baino ez ziren eta, bestetik, euskaltegiek dirulaguntzak jaso ahal izateko bete beharreko baldintza bat zen. Baina, Euskaltzaindiaren irakaslearen «D» tituluarekin lehenengoz eta EGArekin geroago gertatu ez bezala, glotodidaktikari buruzko gaiak ere sartzen ziren oraingoan (EHAA, 109, 1984).

Irakasleak, oro har, oso gazte hasten ziren eskolak ematen prestakuntza berezirik gabe, teknika gutxi batzuetan trebatzeko ikastaroren bat ez bazen. Handik gutxira,

lan hobea bilatu, ikasketak amaitu edo beste zeregin batzuen ondorioz, euskara-irakasleak esperientzia apur bat hartu eta trebatzen hasten zenean, eskolak bertan behera uzten zituen.

3. Profesionaltasunik eza

Profesionaltasunaz hitz egiten dugunean bereziki bi ezaugarri dauzkagu gogoan: dedikazioa eta ordainsaria. Batak bestea dakar, halabeharrez, eta bi ezaugarri horiek oso berandura arte ez ziren helduen euskalduntze-alfabetatzearen jardueran agertu, eta are beranduago bereganatu zituzten irakasle guztiek, profesionaltasuna eta zale-tasunaren arteko mugak beti oso garbi izan ez baitituzte. Irakasleak, beraz, urteetan euskera-zale eta irakasle-zaletu handiak izan zitezkeen, ez, ordea, irakasle profesionalak.

70eko hamarkadaren erdialdera arte ezin esan daiteke profesionalizatzerik denik, orduan, ikasle kopuruaren gorakadarekin batera hiriburuetan euskaltegi batzuk sortzen hasi zirelako jarduera trinkotuz eta diru iturriak matrikulen bidez neurri batean bermatuz. Dena den, egoera hori ez zen orokorrean Euskal herri osoan gertatzen, 80ko hamarkadaren hasierara arte jokabide bi ikus baitaitezke: hiriburuetakoko euskaltegi handiena (eraberritua eta neurri batean profesionalagoa) eta auzo eta herri txikietakoko gau-eskolena (aurreko urteetako jokabideari atxikia eta, ondorioz, «amateurra»).

Iparraldeari dagokionez, amateurismoa, prestakuntzarik eza eta profesionaltasunik eza azpimarratzen dute bertako lekuko bik, Mattin Larzabalek eta Xipri Arbelbidek (Labayru, 1997: 152).

4. Euskara irakasleen elkarterik eza.

Irakasleak izan dira izan, euskara irakasteko elkarteak eta taldeak ere bai, baina euskal irakasleen interesak eta asmoak bildu zitzakeen elkarterik ez. Egia da euskaltegi eta gau-eskoletako irakasleen arteko koordinazio eta elkar lana izan dela, baina jarduera hori ez da inoiz gertatu irakasleen beraien izenean, baizik eta irakasle horiek ordezkatzen zituzten euskaltegi edo gau-eskolen izenean, helburu akademiko, antolatzaile, propagandazko eta finantzarioak lortzearren.

5. Espezializaziorik eza

Euskara irakasleak irakaste jarduerari zuzenean ez zegozkion hainbat eginkizun bete behar izaten zituen, askotan ikasleekin batera: propaganda kanpaina egin, antolamendu eta koordinazio lanak aurrera eraman, lokalak eta ikasgelak bilatu, matrikulen ordainketak kontrolatu, euskalduntzeko materiala sor zezakeen argitaletxerik ez zegoenez ikas-materiala sortu edo beste erakundeekiko harremanak mantendu. Beraz, irakasleak euskal eskolak emateaz gain, antolatzaile, bultzatzaile eta administratzaile lanak ere betetzen zituen.

6. Egonkortasunik eza

Euskara irakaslea, oro har, gaztea da oso, eta ezaugarri hau ikertzen ditugun urteetan zehar aldatu barik agertu zaigu. Horrek erakusten digu iraupen laburreko jarduera zela, hots, irakasleek urte gutxi batzuez baino ez zutela helduei euskara irakasten irauten. Eta azken urteetan profesionalizatzeko joera erakutsi bazuen ere,

ez zen batere lanbide erakargarria izatera heldu. Soldata txikia, segurtasunik gabeko eta ordukako lana eta aldi baterako jarduera baino ez zen izan. Ikastoletako irakasleek ez bezala, helduen euskalduntzean ibilitako irakasleek ez zuten egonkortasunik, ez iraupenari ez lan egoerari zegokienez.

4.2.2. *Irakasleen bilakaera*

1. *Bakantasunetik taldera*

1936ko gerrate ostean, hainbat pertsonak ikasle gutxirekin –askotan bakar bat baino ez– eta oso baliabide urriak zituztela –maiz beraiek jarrita– euskara irakasteari ekin zioten: Bilbon, Xabier Peña (1947); Gasteizen, Andoni Urrestarazu (1942); Gipuzkoan, Jon Etxaide (1949), Elbira Zipitria (1952); Iruñean, Pedro Diaz de Ulzurrun eta Jose Agerre, eta Parisen Andima Ibiñagabeitia (1945) bakar batzuk baino ez aipatzearren.

Hasierako norbanakoaren ekimen horri talde ekimena jarraitu zitzaion. Une batetik aurrera ikasleak eta irakasleak taldeetan antolatzen hasi ziren kultur, kirol eta elizaren inguruko taldeen babesa bilatuz. Horrela, bada, irakasleak, edozein arrazoi zela eta –apaiztu, ezkondu, bizi-lekua aldatu, poliziak atxilotu, erbestera joan behar izan–, euskara irakasteari uzten bazion ere, taldeak, hein batean bederen, irakaskuntzaren jarraipena bermatzen zuen. Era horretako lehenengo ekimena Xabier Gereñori zor zaio, 1947. urtean *Euskal Ikaslen Alkartasuna* (EIA) taldearen kultura batzordean sartu eta euskarazko klaseak ematea proposatu baitzuen (Labayru, 1997: 71).

Geroago, 1952-1953 ikasturtean, Xabier Peñarekin batera Alfonso Irigoien hasi zen euskarazko klaseak ematen Euskaltzaindiaren egoitzan, Erribera kalean. Bizkaian, 1960az geroztik, Arratian, Durangaldean eta Txoriherrin bereziki, Elizaren babesean sorturiko *Erri-Gaztedik* beste zereginen artean bere gain hartu zuen alfabetakuntza. Gasteizen ere, Umandi erbesteratuz geroztik, irakasleek beren etxeak erabiltzeari utzi zioten eta eliza, ikastetxe eta klubaren babesa bilatu zuten. Alde horretatik aipatzekoa da jesuiten *Jesus Obrero* ikastetxeak, emandako laguntza. Iruñean 60ko hamarkadaren amaieran, Labrit frontoia, San Frantzisko Xabier elizaren eta eskolapioen inguruan hainbat talde bildu ziren euskara irakasteko.

Azkenik, Euskal Herriko seminario eta komentuetako apaiz eta fraideen jokabidea beti bera izan ez bada ere, hainbat tokitan, baimena izan edo izan ez, euskarazko klaseak antolatzen ziren, hala nola Lazkaoko beneditarrean, Arantzazuko frantziskotarrenean edo Derioko Seminarioan.

2. *Taldetik erakundera*

1966ko urtarrilean Rikardo Arregik Euskaltzaindiari *Euskal Alfabetizazio kanpaina* bat bere gain har zezan eskatu zionean, ekintza hori aurrera eramateko beraren eta bere lagunaren laguntza eskaini ez ezik antolamendu berri bat ekarri ere egin zuen. Asmo hori, jakina, ez zen berehalakoan lortu eta hasiera batean Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait herritan ikastaro isolatu batzuk baino ez zituzten eman. Hala ere, Euskaltzaindiaren barruan oinarritzko egitura bat sortu zuten. Lehen Alfabetatze Kanpainarako Batzordea (1966/01/28) Rikardo Arregiren eskakizuna jaso ahala

Euskaltzaindiak izendatu zuen: Juan San Martin, Patxi Altuna, Mikel Lasa, Rikardo Arregi eta Iñaki Beobide. Eta geroago, Donostiako bileran (1968/01/28) Jagon Sailaren barruan Alfabetatze Batzordea osatu zuen. Batzorde hori urteetan zehar berri-tuz joan zen eta 1970ean Euskal Herri osoko ordezkariak osatu zuten Alfabetatze Batzordea lehendabizikoz: A. Irigaray, buru; Begoña Arregi eta Jose Luis Lizundia, idazkari; Serafin Basauri, Kepa Enbeita, Xabier Kintana, Manu Ruiz Urrestarazu, Jean Haritschelhar eta Piarres Xarriton, kideak. Ikusi bezala, handik bi urtera, 1972an, Alfabetatze Batzordearen Oinarri Arauak argitaratu zituen Euskaltzaindiak.

Erakundetze prozesu horretan oraingoz hiru urrats eman behar ziren: lehenengo, 1976. urtearen amaieran, Bizkaiko Alfabetatze Batzordeak eta Gipuzkoako Gau-Eskolak Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea sortu zutenean; bigarrena, 1979an, Foruan egindako bileran, Euskaltzaindiak AEK bere baitatik erauztea erabaki zuenean eta, hirugarrena, 1981ean Eusko Jaurlaritzak HABE sortu zuenean.

Atal honi dagokionez, helduen euskalduntze eta alfabetatzean arituriko beste taldeak (Euskerazaleak, Labayru edo Mende Berri besteak beste) alde batean utzi badi-tugu ere, sendotze eta hedatze jokabide bera erakusten dute. Honez gain, Franko hilurrenean zegoelarik, Bizkaian batez ere, «euskaltegi» izena erabiltzen hasi zen. Horrek izena ez ezik antolamendu berria ere ekarri zuen, irakasleen jarduera, hein batean bederen, profesionalizatuz eta lanbide bilakatuz.

3. Klandestinitateetik legaltasunera

Klandestinitatea izan zen euskara irakasleek jasan behar izan zuten egoera frankismoaren garaian. Orduan, euskara irakasteko laguntzarik ez jasotzea gutxi izan balitz bezala, jazarpena ere pairatu behar izan zuten irakasleek. Egoera hori, ordea, ez zegokion euskararen irakaskuntzari bakarrik¹⁷, baizik eta, orokorrean, euskararen adierazpen guztiei.

Giro horretan ez dira gutxi euskara irakasteagatik poliziaren ustetan susmagarri bihurtu ziren irakasleak, euskararen irakaskuntza erregimenaren aurkako ekintza politikoa bihurtuz. Ez dira gutxi euskara irakasteagatik espetxera joan ziren irakasleak, bertan euskara irakasten jarraituz, eta, ondorioz, ez dira gutxi espetxeetan euskaldundu eta alfabetatu ziren euskaldunak.

Jazarpen hori gordinago izan zen frankismoaren lehenengo urteetan. Hori zela eta, jazarpen hori saihestearren, bestelako bideak topatu behar izan zituzten kultur eta kirol taldeen, elkarte ofizialen edota elizaren babes bilatuz. Zeregin horretarako, batetik, irakasleei guztiz beharrekoa izan zitzairen instituzioetako buru eta arduradun frankista baina euskaltzale gutxi batzuen laguntza, atzeman nahi zuten helburua ona eta zuzena zela –hots, politika tartean ez zegoela– konturaraziz. Eta bestetik, euskarari dagokionez Eliza alderrai ibili bazen ere, frankismoaren garaian Elizak berak izan zuen autonomiaz baliatu ziren irakasleak hainbat euskal eskola antolatzeko.¹⁸

Irakasleak, bestalde, garaiko semeak izaki eta, orokorrean, garai hartako giro politikoa eta, bereziki, euskara irakasteko jasan behar izaten zuten egoera ikusirik, bizi-

bizian eta hurbiletik jarraitzen zituzten orduko mugimendu politiko eta sozialak. Hori zela eta, euskal eskolak emateaz gain, eginkizun politikoetan hainbat irakaslek ere parte hartu zuten. Are gehiago, irakasle batzuk ezagunagoak izan dira politika arloan euskararen irakaskuntzan baino, Jose Luis Alvarez Enparantza, Eustakio Mendizabal, Antton Karrera edo Pruden Sodupe beste askoren artean aipa baitaitezke.

Horrela, bada, euskara irakastea kultur ekintza izateaz gain, eginkizun politiko ere bihurtu zuen frankoren erregimenak, besteak beste Espainiako batasun linguistikoa, euren ustez, kolokan jartzen baitzuen. Baina, euskararen aurkako jarrera hori ez zen beti bera eta berdina izan, baizik eta denboran zehar euskararen irakaskuntza mugatzeko mekanismoak aldatuz joan ziren. Hasiera batean, euskararen irakaskuntza frankismoaren begien aurrean jarduera susmagarria zenez, irakasleak atxilotu eta kontrolatzen zituzten. Geroago, irakasleek, hainbat erakunde eta Elizaren bitartez, nolabaiteko babesla lortu zutenean, euskara ghetto horietatik ez ateratzetik begiratzeko frankismoa. Azkenik, Franko hil osteko konstituzio garaian, oztupo administratiboak agertzen hasi ziren. Nafarroan, adibidez, dirulaguntza urriak banatzeko Nafarroako Administrazioak berak jarritako legeak ez ditu bete¹⁹.

4.2.3. Irakasleen motibazioa

Irakasle guztiak euskara irakasten hasi aurretik ikasleak izan dira, hots, euskaraz ikasi edo bere burua alfabetatu behar izan dute, eta, argi dago: hasierako motibazioa, dela integratiboa dela instrumentala dela ideologikoa, euskara ikasle izandako garaitik datorkiela. Aurrerantzean, motibazio primario horrek bere garapena izango du eta, egoera berriak eraginda, berean jarraitu, sendotu, ahuldu edo eraldatuko da. Beraz, hasiera batean, bederen, oso lotura estua dago ikasle eta irakasleen motibazio moten artean.


Motibazioari dagokionez, hiru epealdi bereiz daitezke: lehenengoa, politiko-ideologikoa, 36ko Gerratea amaitu zenetik 70eko hamarkada hasi arte; bigarrena, politiko-integratiboa 80ko hamarkada arte eta, hirugarrena, integratibo-instrumentalagoa, ordutik hona. Gainera, bilakaera horretan, ikasleak aurrenik eta irakasleak geroago, motibazio politikoak galduz doazen neurrian, irakasleak gero eta profesionalago bilakatu doaz eta ikastaroak ere eraginkorragoak izaten dira. Kontuan izan, alde batetik militantismoa eragilea eta pizgarria bada ere, beste alde batetik oztupoa ere badela, sortutako konpromiso guztien artean euskara kaltetuena baita. Azkenik, motibazio ideologikoa (euskaltzaletasuna, abertzaletasuna) bizia baina laburra da eta, ondorioz, epe luzera motibazio instrumentala (profesionaltasuna) ideologikoa baino sendoago ageri da.

4.3. Ikasleak

4.3.1. Irakasleen bilakaera

Helduen euskalduntze eta alfabetatzeak oso hasiera ahula izan zuen. 75-76 ikasurtean baino lehen ehunen batzuk ikasle baino ez ziren zenbatzen Euskal Herri

Ikasleen portzentajea lurraldeka mapan ezarritako hiri eta herrietan



osoan. Dena den, datuok gorabehera, bazitekeen askozaz jende gehiago euskara ikasten ibiltzea handik eta hemendik sakabanaturik. Harrezkero ikasle kopuruak izugarritzko gorakada izan zuen, Bizkaian eta Gipuzkoan laukoiztu baitziren eta Araban eta Nafarroan, berriz, bikoiztu. Iparraldean, azkenik, oso ikasle gutxi kontabilizatzen ziren. Bilakaera honek agerian uzten digu Euskal herriko lurraldeen egoera ezberdina.

Lurralde industrializatuenetan, hots, Bizkaian eta Gipuzkoan, indar handiz ezarzen eta hedatzen hasi ziren euskalduntze-alfabetatze eskolak. Ez da kasualitatea lurralde hauetan ere hamar bat urte lehenago haurrak hezteko ikastolak abian jarri izana. Lurralde horietako hiriburu eta herri industrializatueta batez ere, euskalduntze-alfabetatzeak lortu zituen arrakastarik eta onarpen mailarik handienak. Bestetik, Nafarroa eta Arabako egoera daukagu. Lurralde hauetako hiriburuak euskalduntze-alfabetatzearen pisurik handiena daramate. Horrela, bada, Gasteizek Arabako ikasleen 2/3 jasotzen ditu eta Iruñeak Nafarroa osoko ikasleen erdiak baino gehiago. Azkenik, Iparraldeko egoera oso bestelakoa da, ikasle gutxiren 3/4 Hendaiatik Baionarainoko kostaldean kokaturik baitade.

Argi dago, beraz, zein izan den hirien garrantzia euskalduntze-alfabetatze prozesuan. Gogora dezagun 50eko eta 60ko urtetan gertatutako bigarren industrializazioak, Euskal Herritik kanpoko etorkinak erakartzeaz gain, baserrietatik hirietarantzko barne migrazioa ere eragin zuela Euskal Herriko baserriak hustuz. Hirietarantzko etorkin euskaldun hauetariko batzuek euskarari tinko eutsi zioten, besteek, al-diz, inguru sozialak edota egoera politikoak eraginda, euskaraz hitz egiteari utzi. Hala ere, batzuen zein besteen seme-alabek, neurri batean bederen, euren buruak alfabetatzeari eta euskalduntzeari ekin zioten, euskal-eskolak sustatuz. Baina, ikasle hauetariko hainbatek ez zuketan nagusitan euskara ikasi beharko hizkuntza-transmisioa apurto ez balitz.

Barne migrazio horrek, halabeharrez, bere eragina izan behar izan zuen hirietan eta bertan gauzatzen ziren (des)kulturatzeko prozesuetan. Beraz, baserriar kaleratu eta kaletartu horien eraginez, ez da kasualitate hutsa ikastolak lehendabizi sortu ziren auzo eta herri beretan geroago helduentzako euskal-eskolak ere sortzea, askotan ikastola horien itzalpean gainera: Hego Euskal Herriko hiriburuez aparte, Basauri, Santutxu, Laudio, Arrasate, Beasain, edo Etxarri ez dira, inolaz ere, salbuespenak. Bada-go barne beste migrazio bat, kopuruz txikikoa baina euskalduntze-alfabetatzean eragin handikoa: ikasketak egitera hirietara hurbiltzen ziren gazteena.

Hiri eta herri industrializatuetako biztanleria handitzearen ondorioz, hiriek ondoan zituzten herri eta auzo txikiak bereganatu zituzten, Euskal herriak inoiz izan ez dituen lantegiz eta etxez osaturiko hiriko lerro luzeak eraikiz (Basauri-Galdakaotik Abraraino, Lasartetik Lezoraino, Ermutik Eibarreraino, Beasainetik Ordiziaraino edo Miarrizetik Baionaraino) bai eta hiri-eremuen diametroa handituz (Iruñea: Barañain, Aurrerabi, Zizur...; Gasteiz: Armentia, Gamarra...). Eta hain zuzen ere, hirigune sortuberri horietan euskalduntze-alfabetatze prozesua indar handiz garatu zen.

Horrez gain, aipatu dugun Euskal Herri barneko migrazio horiek batetik eta hirien inguruko auzo eta herri euskaldunen atzemateak bestetik hirietako euskaldun eta euskalzaleen kopurua handitu egin zuten. Auzo, komentu eta ikastetxeetako euskaldunen kopuru horrek, erdaldunenaren aldean oso txikia izanik ere, euskaldun eta euskalzaleen guneak hirietan osatzea ahalbideratu zuen, eta gune euskaldun horietatik ere sortu ziren euskal-eskolak.

4.3.2. Ikasleen motibazioa

Ikasleen motibazioa aztertu duten autoreen artean Txepetxek eta J. A. Mujikak baino ez dituzte euskaldun berri eta zaharren hasierako motibazioak bereiztu edo, bestela esanda, euskaldun eta alfabetatu nahi duten ikasleen motibazioak. Lehengoen euskaraz ez dakitenez, motibazio estrintseko batetik abiatzen dira halabeharrez; bigarrenek, berriz, aurrekoaz gain badute motibazio intrintseko bat, hots, euskararen ezagutzatik bertatik sortzen dena.

Motibazio estrintsekoen artean, motibazio politikoa nagusi izan da 70eko urteen erdialdera arte. Harrez gero, motibazio politikoa ia ez da aipatzen eta autore guztiek

motibazio integratiboa aipatu badituzte ere, ez da izan den bakarra. Gerora motibazio instrumentala gero eta indar handiagoz nabaritzen da, nahiz eta, itxuraz, motibazio mota horrek eragindako ikasleek emaitza murriztagoak izan. Baina, ez dugu ahaztu behar garai batean hain goraiatua izan zen motibazio politikoak eragindako ikasketek ez zutela emaitza hoberik eman. Gainera, ezin esan daiteke alde zuzenetik motibazio politikoaren zein eratakoa den: integratzailea ala instrumentala. Politikari profesionalek kasu askotan ederto erakutsi dutenez, euskara ikasi dutenean beste zerbait lortzeko izan da, eta beste helburu hori lortu ezean eta euskara behar izan ezean ikasteari utzi diotela.²⁰

5. Ondorioak

Ikertu dugun 1956tik 1986ra bitarteko epealdi honetako euskal kulturaren adierazpenetariko bat jorratu dugu: helduen euskalduntzea eta alfabetatzea. Euskal kultura idatzia ezagutzen denetik euskaldun alfabetatu gutxi batzuk izan dira; bestela, definizioz euskal kultura idatziaz hitz egitea ezinezkoa litzateke, euskaldun alfabetatu gutxi horiek izan baitira urtez urte kultura idatziaren egileak. Eta horiekin batera, motibazio guztiz pragmatikoak (linguistikoak, komertzialak, erlijiosoak...) zituzten euskaldun berri gutxi batzuk ere agertu ziren. Geroago, XIX. mendearen amaieran, motibazio pragmatiko horiekin batera motibazio ideologikoa ere agertu zen euskaldun berriengan.

XX. mendearen erdialdean, alegia, 36ko Gerrateak sortutako hutsartearen eta krisialdiaren ondoren, euskaldunen belaunaldi gazteen artean batez ere, ordura arte ez bezalako kontzientziazte prozesu bat hozitu zen. Kontzientziazte prozesu horren eragile nagusiak, nire eritziz, bi izan ziren: bata, II. Mundu Gerraren amaieran Europatik zetozen mugimendu politiko eta filosofikoak eta, bestea, Hego Euskal Herriaren bilakaera ekonomikoa. Azken honek etorkinen etorrera bizkortu zuen, bertako eta kanpokoen arteko kontraesanak areagotuz. Azken batean, kontzientziazte prozesu horren ondorioz, gerra aurreko eta osteko belaunaldien arteko gatazka sortu zen, urte horietan gauzaturiko mugimendu sozial, politiko eta kulturalen eragile nagusia bihurturik.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea, jakina, testuinguru horretan kokatu beharra dago, eta, gainera, berezitasun bat duelarik: 60ko hamarkadatik aurrera helduen euskalduntze eta alfabetatzea ez da, ordura arte bezala, intelektual gutxi batzuen zeregina izango, baizik eta, hasiera batean astiroago eta 70eko hamarkadatik aurrera azkarrago, jende askoren ardura.

1. Izan nahia eta izan ezina

Euskal Herria bere baitan hartzen duten estatu bietako gobernuak ez dute inoiz euskalduna izaera eta nortasun osoko hiritartzat onartu, baizik eta espainoltasunaren edo frantzesetasunaren zatitzat. Euskalduntasunaren baztertzeko hori era ezberdinez erakutsi dute, politika ezberdinen arabera modu zakarragoz edo zoliagoz jokatuz. Joan den mendean, adibidez, garai, lurralde eta egoera ezberdinen arabera, eus-

kalduna subjektu oso eta berezia bezala ez onartzeko era askotako arrazoiak erabili dituzte Espainia eta Frantziako estatuak,²¹ beti ere ondorio berberera heltzeko. Horrela, batzuetan interes politikoak nagusitu dira (estatuaren batasuna), beste batzuetan, berriz, arrazoi militarrek (garaipenak ematen dituen eskubideak), baita ekonomikoak edota konstituzionalak ere. Hori dela eta, estatuaren interesak lehenestearen ondorioz, euskaldunak historikoki hainbat lurraldetan sakabanatu dituzte. Orobat, estatuaren jokabide hori bera Elizak egin zuen bere. Horrela, bada, Euskal Herriak hezkuntza, administrazioa, lege eta erlijioaren arabera era ezberdinez zatiturik dago. Zer esanik ez hizkuntzen estatutuen arabera, egun bost egoera ezberdin ager baitaitezke, eta, beraz, euskaldunek eskubide eta betebeharrak linguistiko ezberdinak izango dituzte, segun eta Euskal Herriko zein lurraldetan dauden.

Egoera horren aurrean eta iragarpen guztien aurka, bada harritzekoa zenbait euskaldunen jokabidea –euskaldun askoren jokabidea– bere hizkuntzari eta kulturari eusteko ahaleginean. Are gehiago, 70eko hamarkadaren hasieratik aurrera euskaldunena ez ezik jatorri ezberdineko –bertako zein kanpoko– erdaldun askoren euskararen aldeko jokabidea ere bada.

Ondorioz, esan daiteke izan nahia eta izan ezina kontzientziatze horren pizgarriak izan direla, eta gabezien testuinguru horretan, beraz, euskal kulturaren adierazpenak ulertu eta kokatu behar ditugu.

2. Euskararik gabeko euskaldunak edo euskaldunik eza

Ikerturiko urteetan euskaldunen definizio deskribatzaile batetik definizio dialektiko batera igaro da. Definizio dialektiko honek, alde batetik, euskal izaeraren –euskalduntasunaren– baieztapena dakar eta, beste aldetik, euskalduntasunaren eta euskalduntasunik ezaren –hots, erdaltasunaren– arteko aurkaritza. Ildo honetatik, euskara ez da gizaki batzuen ezaugarri pasibo bat, beste gutxi-askorekin batera zerrendatu ahal dena; baizik eta elementu eragilea: euskara ikastera eta hitz egitera bultzatzen duena. Euskara ez da gizabanako batzuek bere baitan gordetzen duten hizkuntza; baizik eta euskaldunek, talde bezala, bere burua identifikatzeko eta euren artean harremanetan jartzeko erabiltzen duten komunikazio-tresna.

Testuinguru horretan helduen euskalduntzea ez da bigarren hizkuntza baten irakaskuntzara mugatzen, ez eta alfabetatzea norberaren hizkuntzaren irakurketa- eta idazketa ere, baizik eta norberaren euskalduntasunaren kontzientziari eusteko eta Euskal Herriko beste euskaldunekin identifikatzeko aukera ere ematen du.

3. Euskara gatazka gunea

Euskal Herrian 56-86 urteetan, euskararekiko jokabide bikoitza dagoela ikusi dugu. Batetik, euskara objektutzat bakarrik dutenena. Hori lehendik zetorren ajea da eta erdaldun eta euskaldun askorengan oso erroturik zegoena. Euskarak, horrela hautemanik, ez die inolako kalterik egiten Espainia eta Frantziako estatuari eta berarek bazterreko egoeretan erabiltzeko ez ohi dute oztopo berezirik jartzen, deseuskalduntze prozesuak bere bideari jarraitzen baitio.

Bestetik, epealdi horren hasieran sorturiko ikastolak, alfabetatze kanpainak, kantaldiak, euskara batua eta euskararen gainerako adierazpen sozial eta politikoak kontzientzia berri baten seinaleak dira, kontzientzia horren muina euskara bera delarik.

4. Intelligentsiarik eza

1956. urteko Pariseko Euskal Batzar Orokorra lehertzeaz zegoen krisialdi baten hasiera baino ez zen izan. Beraz, krisialdi kontestu horretan, gerra ezagutu zutenen eta ez zutenen arteko haustura gauzatu zenean, nekez aurki zitezkeen euskal proiektu bat buru zezakeen intelligentsiarik. Horrela, esan daiteke intelligentsiarik gabeko aldarrikapen prozesu bati ekin zitzaiola.

Proiektu ezberdinen arteko liskarrek, politika arloa gailenduz, kulturari ere heldu zioten eta, ikusi dugunez, euskal eskolak, kulturaren gainerako adierazpenak bezala (ikastolak, euskal kantagintza, aldizkariak, argitaletxeak...) ez ziren egoera horretatik at geratu; aitzitik, bizi-bizian jasan zituzten tira-bira horien ondokoak. Azken batean, ideologia ezberdinen arabera, gatazka horien guztien oinarrian *euskara, euskalduna* edo *Euskal Herria* bezalako kontzeptuei buruzko ikuskera ezberdinak zeuden. Eta ikuskera horiek aldian aldiko eztabaida ziklikoak berpiztu zituzten.

Hein handi batean euskararen aldeko mugimendu horiek guztiak batzen zituena ez zen euskal intelligentsia bat izatea, baizik eta intelligentsia euskalfoboa (antieuskalduna) izatea. Intelligentsia mota honek bazuen euskal kontzientzia pizteak zekarzkioken arriskuen beldur eta, horren ondorioz, euskara eta euskal kulturaren adierazpenen aurkako jarrera oldarkorra erakutsi zuen.

5. Alfabetatzea eta euskalduntzea edo lehenengo eta bigarren hizkuntzen irakaskuntza

Helduen alfabetatze eta euskalduntzea, gaur egun ezagutzen den bezala, hots, jende askok kontzienteki eta sozialki onartu eta martxan jarritako aktibitate den aldetik, jarduera modernoa da baita egungo kultur joeretan txertatua ere. Baina, beste askotan bezala, euskarazko alfabetatzeak ere bere berezitasunak izan ditu: batetik, alfabetatugaia ez da analfabeto hutsa izan, baizik eta ama-hizkuntzaz bestelakoaz alfabetatutakoa eta, sarri, hizkuntza berri horretan bereganaturiko kultur maila handi baten jabea; eta bestetik, alfabetatzeak euskalduntze jarduera berekin ekarri du, azken jarduera honek hizkuntza arrotza ikasteko mekanismoekin antz handia duelarik. Eta jarduera bietan ibilitako ikasle kopuruari eta erabilitako metodoei erreparatzen badiegu, euskalduntzeak alfabetatzea gailendu du, besteak beste euskaldun zahar askorentzat alfabetatzea euskalduntze mota bat bihurtu baitzen.

6. Euskalduntze eta alfabetatzearen ezaugarriak

Ez dago alfabetatzea eta euskalduntzea ulertzeko modu bakarra; aitzitik, alfabetatze-euskalduntzea zer zen eta zertan zetzan eritzi anitz eta kontrajarriak izan dira ikerturiko 30 urteotan. Horrela, jarduera horien helburua zein zen kontuan harturik, planteamendu, arlo, metodo eta ikastaldi ezberdinak antolatu izan dira. Izan ere, planteamendu murrizt batetik –idazten eta irakurtzen ikastea– euskal gizartean uztarturiko planteamendu zabal bateraino aukera ezberdinak aurki daitezke. Labur

bildurik baino ez, ondoko ezaugarriak izan ditu Euskalduntze alfabetatzean izandako bilakaerak:

- *Ezartze esparrua*: Euskal alfabetatzea eta euskalduntzea Euskal Herri osoan geratu da, une ezberdinetan hasi, talde eta erakunde anitzek eragin eta erritmo eta intentsitate ezberdinez gauzatu bada ere.
- *Eratzeko modua*: Helduen euskal-eskolak hezkuntza eta gobernu erakunde ofizialetatik kanpo eratu ziren, eta Hegoaldean 80ko hamarkadara arte ez zen arautu –eta diruz lagundu– betetzen zuten hutsunea. Eskaintza publikoa, EAEn udaletxeen esku geratu da; Nafarroan, hizkuntza eskoletan, eta Iparraldean oraingoz ekimen pribatuak baino ez dio ekin eta egoerak arautu gabe jarraitzen du.
- *Mugimendu hiritarra*: Euskalduntze eta alfabetatzearen jarduera hirietan garatu zen batez ere, herrietakoa hirien isla baino ez izanik.
- *Mugimendu berantiarra eta modernoa*: Funtsean XX. mendearen azken here-nean eraturako jarduera eta munduan zehar gertaturiko bilakaera kulturalen uztartua.
- *Euskalduntze eta alfabetatzearen elkar eragina*: Bi prozesu ezberdin diren arren, azken helburu bera dute: hiztunak euskarazko hizkuntz gaitasun osoa izatea.
- *Bilakaeraren ezaugarriak*:

	1956...	1972...	1982...
Antolatzea	Norbanakoaren ekimena. Antolamendu eza edo txikia. Gizabanakoaren lana nagusi. Ikastaro laburrak.	Ekimen pribatua elkarte kulturalen bidez: koordinazioa. Talde lana nagusi.	Ekimen pribatua eta instituzionala Hegoaldean. Erakundeak, Instituzioak. Ikastaro luzeak.
Motibazioa	Politiko-ideologikoa	Politiko-integratiboa (Instrumentala)	Integratibo-instrumentala
Metodoa	Gramatika-ituzlpena (Zuzenak)	Metodo modernoak: zuzenak, estrukturalak	Komunikaziozko jokabidea
Euskara	Euskalkiak (gipuzkera)	Euskara batua	Euskara batua
Irakasleak	Zaletuak	Liberatuak	Profesionalak
Ikasle kop.	Gutxi batzuk	Hazkundera	Aurrekoari eutsi

7. Euskalduntze eta alfabetatzearen mugak

Euskalduntze eta alfabetatzearen bultzatzaile sutsu eta eraginkorrenak gazteak izan dira (gaztaroaren bekatuak ote?). Baina gaztetasun horrek badu eragozpenik: batetik, irakasleen baliabide eta prestakuntzarik eza eta, bestetik, antolamendu eta egonkortasun urria.

8. Euskalduntze eta alfabetatzearen eragina

Helduen euskalduntzea ez da bigarren hizkuntza baten irakaskuntzara mugatzen, ez eta alfabetatzea euskaraz irakurtzen eta idazten trebatzera ere. Beste zerbait ere bada: norberen euskalduntasunaren kontzientziari eusten dio eta, ondorioz, euskal gizarteko kidea izateko kontzientzia sortzen eta eratzten laguntzen du. Euskalduna izateko kontzientzia horrek, bestalde, historikoki lehen eta orain, Frantzia eta Espainia estatueta mugak gailentzen ditu.

9. Gerora begira

Kultur mugimendu honen garrantzia ikusita eta sor daitezkeen erronka berrien aurrean azken gogoeta batzuk egin nahiko nituzke:

- Euskara da euskaldunak gehien kohesionatzen duen elementua, euskara barik ez baita euskaldunik.
- Irakasleen profesionalizazioan datza kalitate mailaren hobekuntza, honek dakartzan ondorio guztiakin.
- Euskara erabiltzeak eta erabili beharrak sortzen dituzten motibazio instrumental-pragmatikoak aintzat hartzeak bide berriak urratuko lizkioke euskararen irakaskuntzari.

3. Pentsabidea

	MOTIBAPENA Aldarrikapena (56-71)	EZAGUTZA Irakaskuntza(72-82)	ERABILERA Erabilera (83-86)	
EUZSKADI E.H.	S. Arana Campion → (1907)	Gemika (51-52) R.Galarreta Fagoaga...	Kintana (1975) A. Irigoien (1977)	→ X. Zabaltza (1991)
EUSKALDUNA	Unamuno (1901) → ----- Inurritza Txillardeg Oteiza M. Ugalde ----- Z A / Jakin (66-67) "Euskaldun zertarako" Olaetxea, SMartin, Azurmendi...	Kintana (1975) "Euskaldun berriekin..." Txillardeg (66/78) "EH-tik Erdal Herrira"		
ALFABETATZEA EUSKALDUNTZEA	Planteamendu EXISTENTZIALA R. Arregi "Kontzientzia sortzailea" <i>Jakin, Euskera, Z A (66-68)</i>	P. IDEOLOGIKOA Haranburu-Altuna (1972) P. SOZIALA Eusebio Osa (1972) P. FORMALA Euskaltzaindia (1972) P. IRAULTZAILEA AEK (1976)	Planteamendu INSTITUZIONALA "Publikoa / pribatua" HABESEA (83) • Instituzioak • Komunikabideak • Unibertsitateak	

Aldiak eta gertaerak

Urteak		1956- 1971	1972-1982	1983-1986
Aldiak		MOTIBAPENA	EZAGUTZA	ERABILERA
Ezaugarriak		Kontserbazio unea Euskalduntasuna aldarnikatu	Zabalkunde unea: Euskara ikasi	Implementazio unea: Euskara erabili
Euskalgintza Alfabetatzea	Motibazioa	Politika	Politiko-integratiboa (Instrumentala)	Integratibo-instrumentala
	Metodoa	Gramatika-ituzlipena (Zuzenak)	Metodo modernoak: zuzenak, estrukturalak	Komunikaziozko jokabidea
	Euskara	Euskalkiak (gipuzkera)	Euskara batua	Euskara batua
	Antolatzea	Irakasle zaletuak Norbanakoa	Irakasle liberatuak Taldea, koordinazioa	Irakasle profesionalak Erakundeak, Instituzioak
	Ikasle kop.	Gutxi bazuk	Hazkundera	Aurrekoari eutsi
Gertaerak		- Alfabetatze Batzordea: 1968 - Ikastolen sorrera - Munduko Euskal Batzarra Orokorra (1956) - Euskara batua: Arantzazu 1968 - "Ez dok amairu" (1965)	- Euskaltegiak: Iruñea, 1972 - Euskal Irakasle Titulua - Euskalduntze-Alfabetatzea arautu - Ikastolen hazkundera. - Liburu eta aldizkarien argitalpenen ugalketa - Euskararen aldeko kanpainak - Oskorri, Imanol, Urko... Errobi, Izukaiz	- "Euskalgintza" - Itzultzaileak, teknikariak - Euskarazko komunikabideak - Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko taldeak: EKB... - Euskararen irakaskuntza sare publikoan - Administrazioan euskara sartu - Euskararen legeak - Itoitiz, N. Etxart, Taldeak: rockeroak, pop
Estatuaren jokabidea		Euskararen adierazpenak debekatu eta kontrolatu: zentsura	Euskararen adierazpenak baimendu, baina irakaskuntza publikotik kanpo	Euskara irakaskuntza publikoan baimendu, baina erabilera oztopatu

NOTAS

- 1996ko Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkestaren arabera, 15 urtetik gorako euskaldun elebakarrak biztanleen %0,5 ziren. Are gehiago, 1991eko datuekin erkatuz gero, bost urte horietan euskaldun elebakarren kopurua erdira jaitsi zen, 23.500 lagunetik 12.400era hain zuzen ere. Euskaldun elebakar horietatik gehienak zaharrak ziren (64 urte baino gehiago), pertsona heldu bat ere ez zegoelarik; ez zuten ikasketarik eta gune ez hiritarretan bizi ziren nagusiki (Euskararen Jarraipena II, 1997). Horrek esan nahi du Errepublikara garaiak azken euskaldun elebakarrak jaio eta gerra osteko Frankismoaren garaian hazi zirela. Datu horien arabera, beraz, ez dago Frankismoan jaiotako euskaldun elebakarrik.
- Dantza taldeak askoz lehenago agertu ziren, frankismoaren lehenengo urteetan, hain zuzen. Lehenengoetarikoa Xabier Geroñok, Iñaki Irigoienek eta Josu Pertigak 1947an Bilbon sorturiko «Dindirri» dantza-taldea dugu. Ezbairik gabe, frankismoaren garaian euskal dantzak izan ziren euskalduntasunaren lehenengo adierazpen publikoak eta, askotan, bakarrak. Ez hori bakarrik, dantza taldeek ere babesa, azpiegitura eta lokalak eskaini zizkieten beste adierazpen kultural eta politikoei.
- Azaroaren 25eko 29/1983 LEGEA, –HABESEA Legea–.
- Maiatzaren 19ko 161/1988 FORU-DEKRETUA, Nafarroako Gobernuan Helduei euskara irakasteko dauden ikastetxeen jarduera eta antolaketara-arauek eta helduentzako euskararen irakaskuntza bultzatzen duten Erakunde Pribatuei (Euskaltegi Pribatu eta Gauskolei) laguntzak ematea onartzen dituenak.
- (Egunkaria, 2002-05-30) Data horretan «AEK-k iragarri zuen akordio historikoa sinatuko zuela Frantziako Estatu, Akitania eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduetarekin. Hitzarmen horri esker 178.214 euro jasoko zituen Koordinakundeak». Horixe da Frantziako administrazioaren aldetik gehien lortu dena.
- Aski da 60ko hamarkadaren erdialdean agerturiko liburu eta aldizkarietako artikuluen izenburuei eta galderei –batez ere galderei– erreparatzea eztabaida horren larritasuna ulertzeko: Quousque Tandem...!, interpretación estética del alma vasca (Oteiza, 1963), «¿Quién es vasco?» (Boletín RSVAP, 1966), «Euskalerrian, izkuntza bi, bai?» (Argia, 198, 1966), «Euskal kultura... ta erderaz?» (Argia, 203, 1967), «Baik zergatik eta zertarako euskaldun?» (Argia, 205,

- 1967), «Euskal alfabetizazioa: Zertarako idatzi?» (*Argia*, 237, 1967)... Horrela, bada, hori guztia euskaldun izaera baten bila doan garrasi bihurtu zen. Azken batean, Juan San Martinek zioenez, «euskaldun izaera bi itzen barnean dago: izan edo ez izan» (*Argia*-186, 1966, 1).
7. Euskara bera ala euskaldunak, egoera horren erruduna nor ote den aspaldiko arazoa da, XXVII. mendekoa hain zuzen. Axularren eritziz (1643) «euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak», Tartasen ustez (1666), aldiz, «hanco euscarac, du oguena, eta ez euscaldunac» (Larrea, 1994: 31).
 8. Arrazoi ezberdinengatik garai bateko zelten eta erromatarren hizkuntzak eta oraingo gaztelera eta frantsesa alde batera utzirik, Erdi Aroan euskararekin batera hauexek izan ditugu: Nafarroako eta Errioxako erromantzeak, gaztelera, Languedoceko okzitaniera, arabiera, hebraiera eta gaskoiera (Baionan, Donostian eta Pasaian XIX. mendera arte) [CIERBIDE, Ricardo, 1990: «Plurilingüismo histórico en Euskal Herria», *Fontes Linguae Vasconum*, 56, Príncipe de Viana, Iruñea, 149-164]. Berrikiago eta XX. mendeko migrazio mugimenduen eraginez, gailegoez gain gaztelararen hainbat dialekto bizirik daude. Azken urteetan Hego Amerikako eta Afrikako etorkinen agerpena nabaria da. Aipatu barik doaz, bestalde, erabilera funtzionala izan duten hizkuntzak, hala nola ingelera itsasoan gaindiko komertzioan eta latina erlijio kontuetan. Ildo horretatik administrazio mailako gaztelera eta frantsesa, adibidez, izaera funtzionala izan dute euskaldunentzat iraganean eta orain ere bai.
 9. Azurmendi, ordea, ez da bere burua defendatu behar izan duen bakarra. Euskaldun izateko hainbatek jarritako bide meharren zirrikietatik sartu ezinik, Arestik ere bere burua defendatu behar izan du (Aresti, 1972: 108): «Nik ere hamaika portaera zikin suportatu behar ukan dut; ene euskalduntasuna dudana jarri dute publikoki (nortzuk eta, Letek eta Txillardegik berak ere)». Epikoak dira, bestalde, Oskorri taldeak, espainolista zelakoan, jasan zituen boikotak, 1975ean Ustaritzeko UEUan gertaturikoa lekuko. Imanol Larzabalek ere, askoz geroago, 1986an, bere euskalduna izateko modua aldarrikatu beharra izan zuen: zuhaitz genealogikorik gabekoa, sotanarik gabekoa, txapelik gabekoa eta, batez ere, «mea kulparik» gabekoa (Larzabal: 1986).
 10. Brasilen militarrek boterea hartu ondoren (1964) Paulo Freireren helduak alfabetatzeko kanpainak debekatu zituzten, berau espetxeratu zutelarik.
 11. P. Freirek honako beste bikote hau proposatzen du, aurrekoarekin parekatu ahal dena: heziketa burubetzailea eta heziketa problematizatzailea (Osa, 1972: 140): «Zertan datza heziketa problematizatzailearen gakoa? Batez ere, honetan: objeto dena problema bihurtzea. Heziketa burubetzaileak gauzak presentatzen ditu. Naturaleza gauza da, historia gauza da, geografia gauza da, politika, hizkuntza, erlijioa gauzak dira... Heziketa problematizatzailearentzat, guzti hori problema da... Problema ez da neutrala, gauza den bezala. Problema da desafio bat botatzen digu... Heziketa honetan, gazteak munduan ibilian, transformazio bidean ikusten du, eta bera barnean sartzen da». Haranburu-Altunak ere, beste izen batzuk erabiliz, aurkakotasun bera aurkezten digu (Anaitasuna-229, 1972: 9): «Jakintza, lotzaile edo askatzaile izan daiteke. Jakintza lotzaile baten funtsa mitologizazio batetan datza. Jakintza askatzaile baten guna desmitologizazio batetan datza. Liburuetan eta hitzaldien bitartez jasotzen den jakintzak, lotu egiten du gehienbat. Irakurlea edo entzulea ez da libre, 'eskuratzen' eta 'ematen' zaion jakintzaren aurrean. Ordea, taldeka, eta elkar hizketan geureganatzen dugun jakintza, kritikoa eta askatzaile da».
 12. Gehiegi sinplifikatzea bada ere, Ander Gurrutxagak honela laburtu zuen gertaera horiek: «Las vicisitudes político-ideológicas del País Vasco repercuten en este movimiento, estableciendo dos líneas básicamente: por una parte, la concepción política del movimiento y por otra la lingüística. La Academia de la Lengua Vasca se inclinó por la segunda opción.» (Gurrutxaga, 1985: 264).
 13. (*Argia*, 1985: 106) 1985-1986 ikasturteko datuetarako «AEK-k 31.995 ikasle ditu, Institutuzio ofizialen azpian dauden zentroek (HABE, Udal Euskaltegiak...) 4.612 ikasle, eta besteek 19.909 ikasle. Portzentajetara pasatuz, AEK-k %56,61 osatuko luke, instituzio ofizialek %8,16, eta besteek %35,22». 1997-1998 ikasturteko datuetan ikasle kopuruak erakutsi beharrean talde orduak aipatzen ditu eta portzentajeak aterata hauexek dira emaitzak: AEK %34,98, Udal Euskaltegiak %25,38 eta beste guztiak %39,64.
 14. Horren adibide argia HABE sortu zen urte berean Bilboko *Tribuna Vasca* egunkariak dakar: «Esto de euskaldunizarnos a todos los buenos vascongados, de grado o por fuerza, a la altura de los tiempos que corren, y en el rincón de España y de Europa en que vivimos, sólo se entiende desde ese delirio clerical-fascista que es el nacionalismo vasco... se puede dar la pesadilla de la euskaldunización, el obligar al buen vascongado txikitin, al vasquito y la nesquita, a normalizarse o cretinizarse en 'batua', esperanto o volapunk, con la necia ortografía que inventó Sabino Arana... La verdad pura y simple es que carece de sentido esa pretendida recuperación de identidades

- culturales y nacionales vascas con la euskaldunización. Tal despropósito, tal aberración sólo se explica por un perjuicio político nacionalista, auténticamente sadomasoquista» (BASALDUA, J. M.: «El callejón sin salida de la 'euskaldunización'», *Tribuna Vasca*, 1983-01-30, Bilbo).
15. Ordura arteko datuak ez dira ez zehatzak ez fidagarriak ere, daudenak zenbait eskualderi dagozkielarik. Dena den, oso datu partzialak izanda ere, Anaitasunak 1976an (311 zbk.) argitaratuak aipatzekoak dira lehenak baitziren. Harrez gero, Euskera aldizkariak 1977an, 1979an eta 2000n beste datu bilketa batzuk plazaratu ditu: Euskera-XXII, 1977: 913-915; Euskera-XXIV, 1979: 535-542; Euskera-XLV, 2000(3): 921-930.
16. Irakasle ezaugarriez honako iturrietara jo daiteke: TORREALDAY, J. M., 1969: «Alfabetatzea (3): Euskaltzaindiko Rikardo Arregiri elkarrizketa», *Zeruko Argia*, 334, 18 or. EUSKALTZAINDIA, 1972: Euskal Irakasle Titulua». *Euskeva*, XVII, 220-225 or. MENDIA, K., 1979: «Arabako Euskalduntze Alfabetatze Koordinakundea aurrera», *Anaitasuna*, 392, 13 or. ODRIOZOLA, J.M., 1976: «Alfabetatze kanpainak Gipuzkoan», *Anaitasuna*, 311, 14 or. AEK, 1977: «Gaueskolen aurreprojetua», *Zehatz*, 2, 152 or. ZALBIDE, M. 1977: «Euskararen Irakaskuntza Gipuzkoan», *Jakin*, 2, 132 or. LE-GARRETA, P. M. «Albaro», 1977: «Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduaren orainaz... eta geroaz», *Jakin*, 4, 107 or. EKB, 1985: «Euskararen irakaskuntza eta alfabetakuntza», *Jakin*, 34, 67 or. SAGARNA, A. 1979: «Alfabetatze-Euskalduntze irakasleak», *Euskeva*, XXIV, 535-542 or. MENDIA, K.; URANGA, J. 1981: «Arabako Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea», *Jakin*, 17-18, 109 or. HABA, 1981: «H.A.B.E. berriak», *HABA*, 0. DIAZ GOIKURIA, E. 1991: «Alfabetatze Batzordea: Sorrera eta bilakaera», *Ele*, 8, 75 or. GIPUZKOKO AEK, 1978: «Balantze gisako zerbait», *Zehatz*, 4, Donostia, 97-98 or. ALFABETATZE EUSKALDUNTZE BATZORDEA, 1980: «Bilboko eskualdea eta alfabetatze euskalduntze batzordea», *Anaitasuna*, 398, 10 or. *Argia*, 1981: «Ikas euskara korrika», *Argia*, 920, 29-30 or. ASTEMA, 1983: «Iparraldeko AEKrekin solasean», *Argia*, 988, 19 or. LIZUNDIA, J. L., 1990: «Bizkaiko alfabetatzea». Alfabetatzea Euskal Herrian (1960-1990): Kronika laburra, *Letrakit*, 25 or.
17. Ez dago txarto gogoratzea bai frankismoaren garaian bai konstituzio garaian, euskal izenak ere susmagarri izan direla. Bizidunen zein hildakoen euskal izenez J. M. Torrealdai adibide argigarriak bezain adierazgarriak ematen ditu (Torrealdai, 1998). Berriki, (azkena ote?) 2000ko udan, Enrique Villarek, Espainiako Gobernuaren ordezkariak, adierazitakoa euskal izenak kale borrokarekin erlazionatu zituztean.
18. Gerra ondoko Elizaren jokabideaz P. Altuna eta G. Garate jesuiten eta D. Amundarain beneditarraren testigantzak oso argigarriak dira (Labayru, 1997: 101): «Herriko apaizek gehienetan euskararen aldeko joerak izan dituzte. Monjen —eta batzutan fraileen— artean aldiz, bertakoak kanporatu eta kanpokoak hona ekartzeko joera izan dute, honela gazteleratze orokor baten prozesua sortuz ». Koldo Mitxelena, berriz, grina gutxiagoz, hauxe diosku (Ibarzabal, 1977: 151): « En algunas Ordenes Religiosas, poco a poco, empieza a surgir cierto interés por las cosas vascas; no es que antes de la guerra no lo hubiera habido: valga como botón de muestra de que incluso dentro de las mismas ordenes hubo miembros castigados o expulsados, el ejemplo de los Capuchinos de Alsasua, o el del mismo Zaitegi, que abandonó la Compañía de Jesús por motivos políticos. Sin embargo, hay un lento cambio de ambiente y surge un renovado interés por el País entre algunos miembros del estamento religioso ».
19. 1981-1982 ikasturterako, adibidez, Nafarroako Diputazioak helduen irakaskuntzan ari ziren zentroi dirulaguntzak emateko arautegia atera zuen, baina gero, dirurik ez bide zuen eta, agindutakoa ez zuen bete. 1982an «Korrika-2» Nafarroatik pasatzea galarazi nahi izan zuen Ansuategi Gobernadoreak, AEK-k, antolatzaileak, nortasun juridikorik ez zuela eta. Handik hogeit urtera Iruñako Udalak berdin jokatu nahi izan zuen eta 2003ko 13. Korrika Iruñako alde zaharretik pasatzea debekatu zuen.
20. Alde horretatik, motibazio politiko-instrumental hori ez da Euskal Herri osoan gertatzen, EAEn soilik baizik. Ezagun da nola EAEn 90eko hamarkadaren amaieran Euskadiko Jaurlaritzarako zenbait lehendakariak hauteskunde aurretik euskara ikasteari ekin zioten: Jauregi (PSE), Iturgaitz (PP) eta Ibarretxe (EAJ). Baina, hauteskundeak igarotakoan lehendakaritza lortu ez zutenek euskara ikasteari utzi zioten (edo jarraituz gero ez zitzairen aurrerapenik nabaritu). Irabazlea, berriz, euskara ikasten jarraitzeko motibatuagoa eta bide batez behartua egon da. Nafarroan eta Iparraldean ez da horrelako egoerarik eza gutu: bertan euskara ez bide da beharrezko kargu politikorik atzemateko. 90eko hamarkadaren hasieran HBk bere kargu publikoei euskara jakin beharra ezartzea ere motibazio instrumentaltzat har daiteke, hots, hautagaiek euskara jakitea zuten gainditu beharreko baldintza. Kasu horietan guztietan euskarak erabilera markatua du. Argiago ikusteko, Manuel Fragak ez zuen adierazpen publikorik gailegoz egin

- Galiziako Xuntako presidentegaia izan arte: erabile-
ra markatua. Katalunian, berriz, katalanaren erabi-
lera arruntagoa da kargu publikoak eskuratu aurre-
tik eta eskuratu ondoren: erabilera neutroa.
21. Espainiako Estatuari dagokionez, 1978ko Euska-
diko Autonomia Estatutua onartu arte ez zen euska-
raren alde bateko ofizialtasunik onartu. Frantziari da-
gokionez, egoera latzagoa da eta Yolanda Molina
abokatuak dioenez, Frantziako Legeak uzten dituen
zirrikituak baliatu behar dira (MOLINA, Yolanda:
«Frantziako Legeak sekulako aukera ematen du euska-
rara baliatzeko», *Egunkaria*, 2002-02-02, 14 or.).

Argibide bibliografikoak

Aldizkariak, egunkariak, urtekariak

- Anaitasuna*, 227, 1972; HARANBURU-ALTUNA, L.: «Alfabetatzearen urratsak», Bilbo, 3.
- Anaitasuna*, 229, 1972; HARANBURU-ALTUNA, L.: «Alfabetatzearen pedagogia», Bilbo, 8-9.
- Anaitasuna*, 230, 1972; OSA, Eusebio: «Euskaldundu eta askatu: Helburu hurbila eta azken hel-
burua», Bilbo, 6.
- Anaitasuna*, 244, 1972; OSA, Eusebio: «Heziketa askatzailea: Kontzientzia kritikoa», 16.
- Anaitasuna*, 311, 1976; ELKAR LANEAN: «Herria kultura bidean: Euskalduntze-Alfabetatzea».
- Argia*, 186, 1966; SAN MARTIN, J.: «Izkuntza ta etnia: Olaetxea jaunaren itzaldiari oar batzuk», 1.
- Argia*, 188, 1966; OLAETXEA, Juan Bautista: «Aize-errotak eta giz-aundiak», 1.
- Argia*, 190, 1966; KALZADA, Julen: «J. Olaetxea'ren 'Aize-errotak eta giz-aundiak'ri», 11.
- SAN MARTIN, Juan: «'Zein da euskalduna?' galderari erantzun egoki ta argi batzuek: J.
Olaetxea'ren 'Aize-errotak eta giz-aundiak'ri», 1, 11.
- Argia*, 203, 1967; KINTANA, Xabier: «Euskal kultura... ta erderaz?», 3.
- Argia*, 205, 1967; AZURMENDI, Jose: «Baïña zergatik eta zertarako euskaldun?», 3.
- Argia*, 217, 1967; AZURMENDI, Jose: «Zertako euskaldun?», 7.
- Argia*, 229/230, 1967; SAN MARTIN, Juan: «Euskaldunen alfabetizazioa», 1-2.
- Argia*, 232, 1967; SAN MARTIN, Juan: «Euskaldunen alfabetizazioa», 1,9.
- Argia*, 237, 1967; ARREGI, Rikardo: «Euskal alfabetizazioa: Zertarako idatzi», 1.
- Argia*, 334, 1969; TORREALDAY, J. M.: «Alfabetatzea: Rikardo Arregiri elkarrizketa», 18.
- Argia*, 1984: *Euskal kulturaren urtekaria*, Donostia, 164-165, 176-177.
- Argia*, 1985: *Euskal kulturaren urtekaria*, Donostia, 106.
- Argia*, 1987; ELKAR LANEAN: «Nafarroan euskal kultura burua jaso nahian: Ikastolatik euskal
eskola publikorantzako bide neketsua», *Euskal kulturaren urtekaria*, Donostia, 182-185.
- BAT (Soziolinguistika aldizkaria)*, 7/8, 1992; IÑIGO, Joxe Jabier: «Helduen euskalduntze alfabetat-
zearen herri mugimendua», EKB, Donostia.
- BAT*, 13/14, 1994; AMONARRIZ, Kike: «Euskararen erabilpenaren kale neurketa 1993: abiapuntu
berria», EKB, Donostia, 89.
- Boletín RSVAP* (Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais), 1966; OLAETXEA, Juan Bautista:
«¿Quién es vasco?», 486-492.
- Egunkaria*, 2002-02-02; MOLINA, Yolanda: «Frantziako Legeak sekulako aukera ematen du euska-
ra baliatzeko», 14-15.
- Ele*, 8, 1991; DIAZ GOIKURIA, Eduardo: «Alfabetatze Batzordea: sorrera eta bilakaera», 57-91.
- Euskera*, IV, 1959; EUSKALTZAINDIA: «Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz», 214-215.
- Euskera*, XVII, 1972; EUSKALTZAINDIA: «Alfabetatze Batzordearen Oinarri Arauak», 218-219.
—EUSKALTZAINDIA: «Euskal Irakasle titulua», 220-225.

- Euskera*, XXII, 1977; ALFABETATZE EUSKALDUNTZE BATZORDEA: «1977-78 ikasturteko ikasle-irakasle argitasunak», *Euskaltzaindia*, Bilbo, 913-915.
- Euskera*, XXIV, 1979; SAGARNA, Andoni: «Alfabetatze-Euskalduntze irakasleak», 535-542.
—EUSKALTZAINDIA: «Euskal Herri hitza ez baztertzea», 115.
- Euskera*, XLV, 2000 (3); ZEARRETA, Juan Jose: «Alfabetatzea-Euskalduntzea eta Udako ikastaroak», *Euskaltzaindia*, Bilbo, 921-930.
- FLV (Fontes Linguae Vasconum)*, 20, 1975; KINTANA, Xabier: «Euskaldunon ethni izenaren etymologiaz», *Pricipe de Viana*, Iruñea, 191-207.
- FLV*, 56, 1990; CIERBIDE, Ricardo: «Plurilingüismo histórico en Euskal Herria», *Principe de Viana*, Iruñea, 149-164.
- Gernika*, 17, 1951; RUIZ DE GALARRETA, Carlos: «¿Euskal-Errie o Euzkadi?», *Guatemala*, 53-56.
- Gernika*, 18, 1952; GAVEL, Henri eta beste: «Juicios sobre el artículo 'Euskalherria o Euskadi' de Carlos Ruiz de Galarreta», *Guatemala*.
- Gernika*, 19, 1952; MUNIAIN, Felipe eta beste: «Juicios sobre el artículo Euskal Herria o Euskadi de Carlos Ruiz de Galarreta», *Guatemala*.
- Jakin*, 25, 1967; INTXAUSTI, Joseba: «Eskutitz irikia: Euskal-herri'tik Alemania'ra», *Frantziskotarrak*, Arantzazu, 1-8.
—ZUZENDARITZA: «Irakurlearentzat», 1.
- Jakin*, 27/28, 1967; AZURMENDI, Jose: «Zergatik eta zertarako euskaldun?», *Arantzazu*, 66-91.
- Jakin Sorta*, 3, 1971; ALFABETATZE BATZORDEA: «Rikardo Arregi, Alfabetatzearen eragile», *EFA*, Oñati, 54-65.
—ARREGI, Rikardo: «Euskaldunen gizagintza», 171-205.
- Jakin*, 4, 1977; LEGARRETA, Pedro M^a «Albaro»: «Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduaren oraina... eta geroaz», *Anaidia*, Arantzazu, 102-108.
- Jakin*, 34, 1985; EKB: «Euskararen irakaskuntza eta alfabetakuntza», *Anaidia*, Arantzazu, 66-77.
- Jakin*, 66, 1991; ZABALTA, Xabier: «Zazpiak bat», *Jakinkizunak*, Donostia, 105-125.
- RIEV*, 1, 1907; CAMPION, Arturo: «Sobre el nuevo bautismo del País Vasco», *Eusko Ikaskuntza*.
- Urraspide*, 2, 1978; AEK: «Ikasle mota berri bat», *AEK*, Bilbo, 29-31.
- Uztaro*, 9, 1993; EIZAGIRRE, Ana: «Euskal Alfabetatzea: euskararen erabilerak: 1970-1990», *UEU*, 27-58.
- Zutabe*, 3, 1983; AMUNDARAIN, Dionisio: «Euskal alfabetatzearen historia zirriborratuz», *HABE*, Donostia, 126-129.
—ARGIÑARENA, Jesús: «Irakaslegoa: 1981-1983», 10-17.

Bibliografia

- AEK; 1982: *Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea-ren historia Gipuzkoan: argitaratu beharrekoa*, Elkar, Donostia.
- AEK; 1985: *Alfabetatzen (I): Ekintzatik komunikazioara*, EH-ko Talde Didaktikoa.
- ARENAZA, J.; 1974: *Tus hijos y el euskera. El mito del batua*, S. I.
- ARESTI, G.; 1972: «Euskal-kideak, Baiona, '72 (G. Arestik eta Oskorri Taldeak)», non: Gabriel Arestiren literatur lanak-10, Susa, Bilbo, (1986), 108-121.
- ATXA, J.; 1999: *Historia txiki baten harian: Jaso Ikastola*, Jaso, Iruñea.
- DIAZ GOIKURIA, Eduardo; 1988: *AEK-ren Historia*, Argitaratu gabeko tesina, EHU-UPV.
- EUSKALTZAINDIA; 1986: *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*, *Euskaltzaindia*, Bilbo, 10.

- Euskararen Jarraipena-II; 1997 (EUSKO JAURLARITZA; NAFARROAKO GOBERNUA; EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA): *Euskal Herriko soziolinguistikazko Inkesta: Euskararen jarraipena-II, 1996*, Gasteiz.
- GAB; 1971 (ARREGI, M.; JAUREGI, J. B.; SAGARNA, A.): *Lehen Urratsak*, Gipuzkoako Alfabetatze Bulegoa, Donostia.
- GARMENDIA, J. M.; ELORDI, A.; 1982: *La resistencia vasca*, Donostia.
- GURRUTXAGA, Ander; 1985: *El código nacionalista vasco durante el franquismo*, Grupo, Barcelona, 255-270.
- HABE; 1983: *Helduen Alfabetatzerako Programazioa*, Hezkuntza eta Kultura saila, Zarautz.
- IBARZABAL, E.; 1977: *Koldo Mitxelena*, Erein, Donostia. «Inurritza» MITXELENA, Salbatore, 1958: *Unamuno ta Abendats*.
- KINTANA, X.; TOBAR, J.; 1975: *Euskaldun berriekin euskaraz*, Cinsa, Bilbo.
- LABAYEN, A.M.; 1972: *Sasi-Batasuna: Mala letra y peor espíritu de una pseudo unificación*, Lopez Mendizabal, Tolosa.
- Labayru; 1997 (BASTERRETXEA, I. eta beste): *Euskal Alfabetatzearen Historia zenbait sortzailearen abotan: 1960-1990*, Labayru, Bilbo.
- LARREA MUXIKA, J.M; 1994: *Euskaldungoa erroizturik*, Pamiela, Iruñea.
- LARZABAL, Imanol; 1986: «Nire euskaltasuna», *Mea kulparik ez*, (Diskoa), Elkar, Baiona.
- LETRAKIT; 1990: Alfabetatzea Euskal Herrian (1960-1990): Kronika laburra, *Letrakit*.
- LIZUNDIA, J. L.; 1975: «Aitzin solas gisa», *Alfabetatzen-1*, CINSA, Bilbo, 9-10.
—1990: «Bizkaiko Alfabetatzea», *Alfabetatzea Euskal Herrian (1960-1990*, Letrakit, 18-30.
- OSA, Eusebio; 1972: *Pedagogia eta gizartea*, Lur, Donostia.
- «Oskillaso» BASTERRETXEA, J.; 1984: *El libro negro del euskara*, La G. Encicl. Vasca, Bilbo.
- OTEIZA, Jorge; 1963: *Quousque Tandem...!, interpretación estética del alma vasca*, (5. argit., Pamiela, 1993), Auñamendi.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I.; 1983: *Euskararen borroka. Oinarrizko inkesta bat: ezagutza, erabilera, jarrerak*, Eusko Jaurlaritza Gasteiz. (Jakin-26, 1983: *Euskararen borroka*, Arantzazu).
- RUIZ OLABUENAGA, J.I. eta beste; 1986: *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, Tartalo, Donostia.
- SAN MARTIN, J.; 1969: «Euskararen inguruan», *Euskararen ostarreak*, Erein, Donostia, (1998), 73-126.
- SIADeco; 1978: *Estudio sociolingüístico del euskera. Euskerización y alfabetización de adultos*, IX. Alea, Euskaltzaindia, Bilbo.
—1979: *Alfabetatze-Euskalduntze mugimenduko irakasleak eta euskara batua (1977-1978)*.
- TORREALDAI, J. M., 1977: *Euskal idazleak, gaur: Historia social de la lengua y literatura vascas*, Jakin, Oñati.
—1998: *El Libro Negro del Euskera*, Tarttalo, Donostia.
- «Txepetx» SANCHEZ CARRION, J. M., 1987: *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*, Donostia, (Luigi Anselmi poetak euskaratua: *Gure Iraganaren Geroa Gaur*).
- «Txillardegi» ALVAREZ ENPARANTZA, J.L.; 1965: *Huntaz eta hartaz*, 69-79.
—1978: *Euskal Herriatik Erdal herrietara*, Graficas Bilbao, Zornotza.
—1984: *Euskal kulturaren zapalketa (1956-1981)*, Elkar-AEK, Donostia.
- VILLASANTE, L.; 1979: *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu, Burgos.

RESUMEN

El presente trabajo analiza la situación de la enseñanza de euskera de adultos entre los años 1956 y 1986. En este sentido dos han sido las cuestiones a las que se han querido dar repuesta: por un lado por qué surgió y se desarrolló la enseñanza del euskara en adultos y, por otra parte, qué elementos posibilitaron dicha actividad. Para responder a la primera pregunta se han tenido en cuenta las discusiones ideológicas surgidas en ese periodo. Para la segunda, en cambio, se han analizado a los protagonista (profesores y alumnos). Todo ello no se podría entender sin tener en cuenta la situación socio-política de Euskal Herria: por medio de un proceso de concienciación surgido en ese periodo, un incontable número de adultos emprendió la tarea de aprender o alfabetizarse en euskara, sobre todo a partir de la década de los setenta.

LABURPENA

Lan honen bidez 1956tik 1986ra bitartean hogeita hamar urtez helduen euskaren irakaskuntzan izandako gorabeherak aztertzen dira. Asmo horrek gidatuta bi izan dira erantzun nahi izan diren galderak: batetik, zergatik sortu eta garatu zen helduen euskalduntze-alfabetatzea eta, bestetik, jarduera hori zein osagaik ahalbideratu duten. Lehenengo galderari erantzuteko, epealdi horretan sortutako eztabaida ideologikoei erreparatu zaio. Bigarreneko, berriz, jarduera horren egileak –hots, ikasleak eta irakasleak aztertu dira. Hori guztia ezin uler zitekeen urte horietan Euskal Herrian izandako egoera sozial eta politikoa kontuan hartu barik. Izan ere, urte horietan sortutako konzientziazio prozesu baten bidez 70eko hamarkadaz geroztik, inoiz ez bezala, heldu askok euskara ikasteari edota alfabetatzeari ekin zioten.

ABSTRACT

The current work analyses the teaching of Basque to adults between 1956 and 1986. Two main topics regarding this issue have been studied: firstly, the reason why the teaching of Basque to adults started and developed and secondly, the elements which made it possible. In order to explain the first issue we have taken into account the ideological arguments that have arisen in this period. In addition, an in depth study of teachers and students has been carried. To understand better the situation, the socio-political environment of the Basque Country has been taken into account: a significant number of adults began to learn or became literate in Basque, especially after the seventies, due to a self-awareness they gained during that time.